

# ARGIA

ERREPORTAJEA GUATEMALATIK

## *Inguruak kutsatu eta mehatxatzen ditu Solway multinazionalak*

26-32. orrialdeak

# 2.896 | 2024 / 12 / 08 | 4,00 €



**"Azkoien normal izan behar du D ereduan matrikulatzea"**

16 | CRISTINA OSÉS



**"Eskola partikularretara hainbeste ikasle etortzea ez da normala"**

36 | AITZIBER IBARBIA



**"Komikilarion lana da haurtzaroaren grina mantentzea"**

46 | CRAIG THOMPSON



9 778402 139093



# KRISTALEZKO ZOOA

Tennessee Williams

## ANTZERKIA EUSKARAZ

Moldaketa eta  
Zuzendaritza:  
**Natalia Menéndez**

Itzulpena eta  
euskarara egokitzea:  
**Kepa Errasti**

Antzezleak:  
**Mikel Losada**  
**Ione Irazabal**  
**Miren Gaztañaga**  
**Arnatz Puertas**

Arriaga Antzokiaren ekoizpen berria  
**ESTREINALDIA**

**MARTXOAK 21 – 23**



**Bilbao**

EL CORREO

GARA

Deia

bbkE

Bizkaia  
Foruak  
Gobierno Foral

SEIZ

Radio  
Bilbao

inaem

mondragon  
Lingua

fcc  
Medio Ambiente



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO  
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

## Iritziak

- 21 | KARMELO LANDA
- 22 | TERE MALDONADO
- 23 | MAIALEN ARTEAGA
- 23 | LEIRE NARBAIZA
- 24 | ZIGOR ETXEBURUA

## Finkoak

- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



AZALEKO ARGAZKIA: EDDY ZETA / PRENSA COMUNITARIA

GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



AITOR ASPURU / ARGIA-CC-BY-SA

### 46 | CRAIG THOMPSON KOMIKIGILEA

Kultuzko eleberrri grafikoaren egile estatubatuarra elkarrizketatu du Aitor Aspuru. *Gingsenaren sustraiak* bere azken lanari buruz mintzatu da eta tartean harilkatu dira gai hauek: lanaren etika, laborantzaren bilakaera, umeen soldatapeko lana, familiakoekin izandako harremanen gora beherak, klasea, erlijioen isolamendua, osasun sistema pribatua...

## Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HUBIL

### Tunagate: merkurio pixka bat nahi entsaladarekin?

Urko Apaolaza

16 | PERTSONAIA | CRISTINA OSES

### "Jakín nahi dut nola deseraiki euskararen aurreko indiferentzia"

Amets Aranguren

26 | NAZIOARTEA

### "Kapitalismo berdearen izenean, lurraren defendatzaileak kriminalizatuta"

Leire Artola

33 | GIZARTEA | ETXEBIZITZA SINDIKATUAK

### "Arazoa ez da etxebizitzaren prezioa igotzea, etxebizitzak prezio bat izatea baizik"

Leire Ibar

36 | HEZKUNTZA | AITZIBER IBARBIA

### "Eskola partikularren eskaera handia zerbaitek huts egiten duen sintoma da"

Mikel Garcia

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

**Gobierno de Navarra**  **Nafarroako Gobernu**

### Jabetza

 Komunikazio Biziagoa  
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

### Erredakzioa

 Axier Lopez, Eneritz Arzallus,  
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,  
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Julene  
Flamarique, Lander Arbelaitz, Leire Artola,  
Leire Ibar, Manex Moreno, Mikel Garcia,  
Onintza Irureta, Urko Apaolaza,  
Xabier Letona, Zigor Oleaga

### Diseinua

Maitane Gartzandiandia

### Argazkilaria

Dani Blanco

### Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

### Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

### Banaketa

Olatz Korta

### Azoka

Mikel Olabide

### Idazkaritza

 Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze,  
Bego Zuzá

### Web garapena

Asier Iturralde

### Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

### Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

**Batzorde parekidea:** 72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikoak

 komertzial@argia.eus  
komunitatea@argia.eus

#### Telefonoa

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
31001 Iruñea

 Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA  
honako enprekin batera:





## Doan eta libre

 ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,  
zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza  
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

 Lizentzia hau baliagarria da testuentzat  
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,  
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

 Ekoedizioaren Institutuko  
bazkide da ARGIA

**OLATUKOOP**

 Ekonomia sozial eraldatzailearen  
sareko kide gara





# Ez-herritarrak

Iragan astelehenean, Trumpek ziurtatu du larrialdi nazionala ezarriko duela aginte makila hartzean, besteak beste, armada migrazio lanetara zabaltzeko. Horrez gain, hauteskunde-kanpaina hainbatetan aldarrikatu zuenez, "AEBetako historian inoiz izandako deportaziorik handiena egingo duela" azpimarratu du, eta muga erabat itxiko duela, "migratzaileen inbasioa gelditzeko". Bere hitzetan, adingabeak barne, paperik gabeko 11 milioi pertsona inguru daude herrialdean, baina kopurua 15 edo 20 milioitik gertuago dagoela uste du. Bitartean, Mexikoko hegoaldeko mugara gero eta lagun gehiago heltzen ari da, eskuin mutur trumpzalea agintera iritsi aurretik. Baina errealitatea da muga ia erabat itxita dagoela jada, ekainean Joe Bidenek sarrerak drastikoki mugatu eta deportazioak esponentzialki azkartu dituen dekretua sinatu ondoren. Datu ofizialen arabera, 2022ko irailetik 2023ko irailera, 142.580 "ez-herritar" deportatu zituzten. Munduko lehen potentziak halaxe definitzen ditu-eta eskubideak ukatzen dizkieten pertsonak.

📍 Texaseko muga, Mexikoko Rio Grande zeharkatu ondoren.

J. MOORE / GETTY IMAGES

AXIER LOPEZ



## Benito Lertxundik erretiroa hartuko du

**GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA**

**82** urteko abeslari oriotarrari iritsi zaio agur esateko ordua. Mende erdi baino gehiago eman du oholtzan, eta adio esateko bi-ertzeko forma hautatu du: utzi egingo duela bai, baina disko bikoitz berria eskuetan: *Benito Lertxundi. Gernika kontzertuan*. Gernikan 2023ko azaroaren 11n eskainitako kontzertuaren zuzeneko da.

Ez du ibilbide makala egin Orioko bardoak. Datorren urtean beteko dira 60 urte Ez Dok Amairu sortu zenetik, eta taldearen sortzailetakoa bat izan zen Lertxundi. Ondo gogoan zuen Ez Dok Amairuko lehen bilera hura, 2022an ARGIAri eskainitako elkarrizketan: "Niretzako surrealista izan zen bilera hura, atera nintzen inpresioarekin ez nuela ezer ulertu, ez nekiela zertan ari ginen. Baina zerbait bazen nigan, sena edo, tiratzen ninduen, horretan jarraitzeko esaten zidana. Bilera batzuk egin genituen, eta hortik sortu zen Ez Dok Amairu taldea. Niretzat berriro jaiotzea, bataioa izan zen. Ordurako kantatzen nuen, baina orduan hartu nuen kontzientzia. Beste nortasun bat, beste kantari bat sortu zen. Garai hartan oso hedatuta zegoen protesta kantutan hasi ginen".

Urte haietan lehen disko motz eta laburrak argitaratu zituen. Tartean, oraindik ere han edo hemen entzuten

diren bi kantu ezagun, *Zenbat gera eta Loretxoa*. Eta *Gure bide galduak* ere bai, bigarren EPan. Gerora, lehen bakarkako lan luzean ere argitaratua, Herri Gogoa zigiluarekin, 1969an. Gitarra hutsez abestua, nagusiki maitasuna eta garaiko egoera soziala uztartu zituen Lertxundik bere letratan. Buelta horretan ezagutu zuen Nafarroa Garaiko Erribera ere, eta hortik sortu kantu homonimoa.

Ez Dok Amairu deseginda, bakarkako bestelako bide bati ekin zion, nahiz proiektu kolektiboetan ere ibili zen han eta hemen. Zuberoara jo zuen asko, eta musikari talde zabala osatu, akordeoi eta harpa soinuak nabarmenduta, eta letragintzan lagunen laguntza jaso zuen: bi abestu ezagun, *Oi Zuberoa* eta *Bizkaia maite* esaterako, Jose Anjel Iri-garaik idatzi zizkion.

Zuberoatik harago, Italiara ere jo zuen Antonio Berschi pianista eta konposatzaile ezagunarengana, baita Bre-tainiara eta Irlandara ere. Azken herrialde horretako musikari miresmen handia diola esan izan du.

Aro berria hasi zuen gerora, behin 60 urteak gerturatzen joan ahala, Euskal Herrian egonkortuago. Ordurako jada aldamenean zuen Olatz Zugasti, aspalditxotik, eta geroagotik bi Zeberio anaiak, Pello Ramírez, Ángel Unzu... Edonor egon daiteke lasai haien ondoan. ●

## Joxerramon Bengoetxea, EHUko errektore

**ERREDAKZIOA**

**E**HUko errektoretzarako hauteskundeak irabazi ditu Bengoetxearen hautagaitzak, botoen %63,6 lortuta. Beste taldeak berriz, Eva Ferreirarenak, botoen %36,3 jaso du. Parte-hartzea %21,9koa izan da eta gora egin du aurreko hauteskundeekin alderatuta. Datozen sei urteetan unibertsitate publikoa gidatuko du Bengoetxeak, lege organiko berriaren arabera lehen aldiz izango da horrela gainera.

Garaipena argi eta garbi lortu du errektore berriak. Segmentu guztietan irabazi du gainera –ikasle, irakasle, teknikari eta administrazioko langileak-. Beste hautagaiak, Eva Ferreirak, aurreko errektoretza taldeari jarraipena eman nahi zion, baina boto-emaeleek aldaketa aukeratu dute.

Duela hamasei urtetik ez da lehariak izan EHUko errektoretzarako hauteskundeetan eta horrek kanpaina bera berotu du. Hautagaiak eta Ferreiraren ingurukoek izandako hainbat jokabidek ere polemika sortu dute –bere taldeko kide Guillermo Quindósek dimititu egin zuen, aurkaria iraintzeko kontu faltsuak erabiltzen zituela jakin ostean-.

Emaitzak jakin ondoren Bengoetxeak adierazi du "unibertsitateak irabazi" duela hauteskundeetan. "Denok nahi dugu onena unibertsitatearentzat, agian ikuspegi ezberdinak izan ditzakegu, baina denok gara talde handi honen parte", gaineratu du errektore berriak. Azaldu duenez, bere agintaldian gakoa izango da "ikasleak zentroan jartzea", eta zentzu horretan ikasleei beraiei eskatu die "kritikoak" izateko errektoretzarekin.

Parte-hartzeak igoera nabarmena izan du segmentu guztietan. Botoa ematera deituta zeuden 50.590 lagunetik 11.081 joan dira boto-kutxetara. Nolanahi ere, hautagaiak izandako emaitzak ponderatuak dira, ikasleen botoak %22,08ko pisua baitu, eta irakasle doktoreenak, adibidez, %56,25.

Filosofian katedraduna da Bengoetxea, 30 urteko esperientzia dauka Europako zuzenbidearen inguruan eta hainbat sari ere jaso ditu, tartean 2021ean eman zioten Jeus Maria Leizaola Saria. ●

## MATERIALISMO HISTERIKOA

## Beteta



UXUE APAOLAZA LARREA

**B**ata bestea irentsiz gordetako azken galtzerdi parearen ondoren, ezin izan nuen kaxoia itxi. Horrela zegoen, gaizki itxita, bi astez jada, pijamena (pijamen tiraderan, oparitutako hiru izan ezik, ez dago pijamarik; "etxerako" kamiseta eta galtzaz beteta dago). Atera ditut paredun eta parerik gabeko galtzerdi batzuk, baina alperrik, zerbaitek ez zidan uzten altzaria laukizuntasunera itzultzen.

Laneko kaxoian ez zait folio bakar bat gehiago kabitzen. Karpetak ditut paperez beteta, inprimakiak eta klaserako artikulua eta jolasak eta liburu bat eta beste irakasleren baten oharren bat eta botila bat ardo eta mototsak egiteko xingola bat. Motxila lanean utzi nuen pasa den asteen, eta han hasi naiz gordetzen botatzeko astirik, gogorik, asmorik izan ez dudana gehienetan paperak.


Azken aldian, bidaltzen ditudan mezuak ezin omen dira gorde emailan, ez daukat lekurik. Ez helbide batean, ez bestean. Ez daukat lekurik telefonoan ere, fitxategi astun asko baitut; adibidez, umez betetako bideoak. Whatsapp abisatu eta abisatu ari zait fitxategiak kudeatu behar ditudala espazioa edukitzeko. Ordenagailuko disko gogorra ere goraino, eta word-eko orrialdea irekitzerako kafesnea bukatuta izaten dut. Drive berdin. Eta aldiror agintzen diot nire buruari kanpoko disko gogor batean sartuko ditudala argazki guztiak, bideo guztiak, kanta guztiak, film guztiak, *sinfalta*, aste honetan.

Ixteko bultzatzen diodan bakoitzean atzean malgukia balu bezala irekitzen ari zaidan kaxoia guztiz hustu, eta atera egin dut altzaritik, apur bat indarka. Eta han hondoan zegoen etxean goxo egoteko erabiltzen dudana pare gorri lodi-lodia, tiraderatik atzeko aldetik erorita. Jantzi egin ditut. Orain lurra daukat galtzerdiz beteta, zulodunetz eta zulorik gabeez. Kaxoia ohe gainean, ezin izan baitut atzera jarri ("apur bat indarka" horrek edukiko du zerikusia). Gehiegi bete zait dena. Ea orain ez naizen ni kabituko, eta bizitza hau itxita utzi, eta beste bat hasi behar dudana. ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



## MOTZEAN

Gaindegiak azken 20 urteotako argazkia egin du: Euskal Herriak biztanlerian, energian eta pobrezian gora egin du, CO2 isurketetan eta elikagaien kontsumoan behera. Espainia eta Frantziarekin alderatuta ongi goazela, baina Europara begiratuta, han puntan daudenetatik oso atzera gaudela zehaztu du.

Tolosan Ertzaintzak pilotakadaz zauritu zuen gaztearen kasua artxibatu du epaileak, kasualitatez jo zuela ebatzita eta biktimak deklaratu aurretik.

Ostia sareko Jakes Bortairu eta Dominika Dagerre militanteak atxilo izan dituzte goiz batez. Salmenta espekulatibo bat salatzeke ekintzarekin lotuta egon daiteke.

Korsikako Asanblean korsikeraz hitz egitearen debekua berretsi du Bastiako Auzitegiak. Epaia tokiko beste hizkuntzei (tartean euskarari) eragiten diela ohartarazi du Asanbleak.

Behin-behineko su-etena onartu zuten Israelek eta Hizbulahk, azaroaren 27an. Gazaren aurkako sarraskia areagotzeko helburuz sinatu duela onartu du Netanyahu.

## LURRALDEA ETA ARKITEKTURA

## Sir



ULA IRURETAGOIENA

Landrestik iritsi da ospe handiko arkitekto bat Galiziako herri txiki batera. David Chipperfield du izena, eraikinarik mundu osotik zehar ditu, Berlin, Milan eta Shangaigo bulegoetatik lanean. Arkitektura elegantea, fina, Sir batek egindakoa. Istorioa Corrubedo herrixkan hasten da. Ribieran bere familiarentzat udarako etxe bat berriztatu eta lurraldeaz maitemindu da. Ondoren, herriko beste eraikin batzuk zaharberritu eta taberna bat ireki du bere semeak gidatua. Fundazio bat, laborategi bat martxan jarri eta Santiago de Compostelan kokaturiko Casa Ria bulegoan arkitekto, politikari, enpresari, bizilagun aktibistak bildu nahi ditu. Publiko eta pribatua elkarrekin lanean jarri. Galiziar plangintzatren panorama astintzen ari da dagoeneko, landako baliabideak balioan jarri eta berreskuratzeko plangintza abian jarri nahi duelako, komunitatearekin lanean. Azken albiste da, baina, Inditex-eko Marta Ortogarekin proiektu komun batean ari dela. BBC-k ere interesa agertu du arkitekto ospetsua Galizian mugitzen ari den proiektu eta ikuspegia zabaltzeko. Kuriositatea pizten du, googleatu bestela.

Apeta, kapritxoa, liluramena. Modakoa, oportunistak, negozioa, elitismoaren moxorroa. Zer ari ote da gertatzen, lekukoari benetan zintzoki laguntzen ari zaion proiektua ala bertakoa eta landa erantsi nahi duen beste proiektu kolonialista bat. Zaila distantziatik jakitea. Kanpotarra, arkitektoa eta dirudun batek sustatzea susmagarri egiten du. Aurreiritziak gaingiduz, aberatsen diru mugimendua lurrean gelditzea aukera bat da ordea. Egia dena da, proiektuak arkitektoaren egitekoa eraikin bat egiteaz haratago jartzen duela. Eraikin baten erai-kuntza erabaki eta balore sistema zabal batean kokatzen da, eta arkitektoaren helburu nagusia eraikinean finkatu behar, sistemaren arkitekturaren ardaztea aldaketa esanguratsua da, politikoa bilakatzen duelako. Lurraldeko komunitatea, bertako ekonomia eta baliabideak sustatzea arkitekturak sekula galdu behar ez zuen lan ildo da... ●



## Euskal hedabideen etorkizunaz

Azken asteotan esku artean ibili ditut honako bi liburuak: *Euskararen go-goetagea* (Euskaltzaindia, 2024) eta *Mariano Ferrer, el periodismo reflexivo. Kazetaritza eta konpromisoa* (Erein, 2023). Irakurri dut euskaldunen %42,2k ikusten duela ETB1, eta %20,6k irakurtzen duela euskal prentsa, Elkar Fundazioaren enkarguz 2018an Siadecok egindako inkestaren arabera. Ez dago txarto, kontuan hartuta EAEko euskaldunen artean %22 dela –Nafarroan %6,7 eta Iparraldean %7– ohikoan euskara erdara baino gehiago darabilena.

Euskaltzaindiko liburuan irakurri dut euskal hedabideen etorkizuneko begiradan “matrize aldaketa” behar dela. Azken 40 urteetan aurrekontuak eta ikuspegia ETBren bueltan egon direla nagusiki, “nazio ikuspegian”, eta aurrerantzean matrize hori “tokiko hedabideetara” –nazio ikuspegia utzi barik– aldatu beharko litzatekeela, esparru horretan euskarazko hedabideek “komunikazioaren lidergoa hartzeko”. Debagoienan hori posible izan dela eta beste leku batzuetan ere izan daitekeela. Hori da mezuaren muina. Eta akaso bai, batek daki, beste esparru batzuetan moduan, logika handia du tokikoa eta gertukoa indartzeak.

Baina indartze horretan beste osagai garrantzitsu bat ere aipatzen da: eskualdeko komunikabide horiek eduki beharko litzukete “lerro editorial partekatua, zeharkatzaileak”, Debagoienan moduan. Zeharkatzailea, nondik noraino? Eskuin espainolistikatu eskuin abertzaleraino? Edo siglekin aipatuta, PPTik EH Bilduraino? Edo nagusiki abertzaleen artekoa, eta beraz, EH Bildutik EA]taraino?

Egiazki, lan-ibilbide osoa ARGIA n egin da, ez dut uste kazetaritza eta “lerro editorial zeharkatzailea” oso bateragarriak direnik, baina aitortzen dut hainbat kazetaritza molde daudela, eta euskarazko horietako guztiak behar dituela. Hori bai, esaten denagatik edo esaten ez denagatik, ez dago lerro editorialik gabeko kazetaritza. Susmoa dut guztion edo zeharkatzaile den horrek, azkenean, eta boterea medio, “batzuen” besteena baino gehiago izatea dakarrela, bereziki dirua jartzen duenarena, izan publikoa edo pribatua.

Mariano Ferrerrek kazetaritza buruzko hausnarketa eta kontzeptu eder ugari zituen: “Kontsentsua ideia propioen inguruan egituratzeko borroka da komunikazioa”, “ez da nahikoa notiziaren berri ematea, gertaeraren eta datuaren arrazoiak eta zioak azaldu behar dira”, “kazetariak estutu behar du agentaria, politikaria”, edo, besteak beste, “sinesgarritasuna independentziatik lortzen da”.

40 urtez EITBk bere buruari eta Lakuari begiratu die nagusiki. Mirentxu Purroyren laburpena zorrotza bezain deskribagarria da: “Arantxa Tapia telebista”. Indartsuena izanik, izan zezakeen euskal hedabideen lidergoa eta haien arteko elkarlanean bestelako funtziorik, baina ez da horrela izan. Nago, benetako matrize aldaketak tokikotasunean baino, jarreretan eta herri ikuspegian daudela, eta euskarazko hedabideen indartzea hortik etorriko dela gehiago: EITBren bestelako konfiguraziotik –Ramón Zallok dioten legez, egin barik dagoen Euskal Komunikazio Legearen menpe egonda?–; Hekimen eta instituzioen arteko elkarlana sendotuta; eta hedabideen arteko elkarlanetik, 40 urtez eskasa, eta oraindik ere urri samarra. Bakoitzak bere izaeratik emanda, gure artean elkarlanerako aukera lehiarako baino askoz handiagoa da. ●



# Nola kudeatu hizkuntzak bileretan?

ONINTZA IRURETA AZKUNE SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

**S**oziolinguistika Klusterrak jendaurrean.eus gida ipini du Interneten. Orientazio tresna bat da, komunikazio publikoetan euskarak ahalik eta toki handiena izatea lortzeko gomendioak eta gakoak eskaintzen ditu. Asier Basurto Soziolinguistika Klusterreko kideari elkarrizketa egin diogu, gidaren inguruko azalpenak eman ditzan.

## Zer da jendaurrean.eus gida?

Gida praktikoa izan nahi du erakundeekin komunikazio publikoa egin nahi duen edonorentzat, hizkuntzak egoki kudeatzeko. Egoki kudeatzean guk sartzen dugu euskarari ahalik eta toki txukunena eta handiena ematea. Komunikazio publikoa esaten dugunean ari gara hitz egiten erakunde batek kanpora begira egiten dituen mila ekintzez. Oso mota desberdinetako erakundeek dituzten beharrak dira, bai eremu digitaletan, bai sare sozialetan, baita ere presentzialki ekitaldi, batzar, bilera zabal eta horrelakoetan, baita ere prentsarekin harremanean...

## Erakundeak aipatu dituzu. Balio dezake herri mugimenduetarako, elkarte eta taldeetarako?

Bai, zalantzarik gabe. Adibidez, ikastetxeak ere kontuan hartu ditugu. Kasu tipiko bat da eskolaren bueltan gurasoekin egin beharreko bilerak. *Jendaurrean* proiektuan askotan problematizatu da gai hau: bi bilera egin, bilera bakarra egin, nola jaso parte-hartzaileen profilak, zeinek ulertzen du, zeinek ez... Nola kudeatu. Elkarrekin ere horrelako bilerak asko egiten dituzte. Bilera zabal bat deitu eta nola kudeatu? Xuxurlaria, aldibereko itzulpena... Hori kasu tipikoa da, baina elkarteak prentsarekin ere badute harremana, sare sozialak erabiltzen dituzte...

## Bederatzi urtez, *Jendaurrean* erabili proiektuaren bidez, hainbat erakundeek hizkuntza kudeaketaren esperientziak elkartrukatu dituzte. Zein ondorio atera duzue?

Ondorio nagusia da gauza horiei buruz hausnartu egin behar dela, ahal dela taldean, erabakiak hartu behar dira, hau-



Inprobisatzen bada, euskarak leku gutxi izaten du.

Joera beti da: "errazago da...", "denek ulertzen dute...", "ohitura hala dugu..."

tuak egin behar dira, denbora eskaini behar zaio, baliabideak ere bai, eta bestela ez da ondo ateratzen. Ondo ateratze horretan galtzen duena euskararen erabilera izaten da. Inprobisatzen bada, euskarak leku gutxi izaten du. Joera beti da: "errazago da...", "denek ulertzen dute...", "ohitura hala dugu...", eta azkenean erdaraz.

## Erabakiak hartzen laguntzeko gida egin duzue. Erabakiak hartu eta praktikan jartzerakoan sortzen dira ezinegonak, erresistentziak, talkak... Horiek kudeatzeko baliabiderik badago gidan?

Gidak daukan *Zergatik?* atala hori da. Hor dago argudiategi bat esplikatzeko erakunde batek zergatik ondo landu behar duen komunikazio publikoan hizkuntzak nola erabili. Hor ematen dira argudioak ondo justifikatzeko: guk hau horrela eta horrela egiten dugu honengatik. Argudiategiak lagungarri izan nahi du erakundeak bere erabakiak

kanpora begira hartzen ditueneko, eta baita etxe barrurako ere.

Jendearen erresistentzietan aurre egiteko gomendioak eta badaude, ez dago atal bat espreski, baina badaude hainbat gako. Bat da gardentasuna eta esplizitu egitea kontuak. Iragartzea bilera bat nola egingo den: euskaraz egingo da eta nahi duenak eskuragarri izango du itzulpena. Edo datorren asteko txostena euskaraz egongo da eta laburpena izango du bukaeran erdaraz. Horrelako gauzak aurrez esanda, ez dira sorpresaz hartzen, eta sustoak eta disgustoak aurreztu egin daitezke. Aurrez hitz egitea garrantzitsua da.

Bigarren ondorio nagusia da moldagarritasuna, testuinguru bakoitza ulertzearen beharra, ez formula kopiatu bakarrik, baizik eta pentsatu: noizekin ari zara lanean, zertarako... Etengabe probatu eta emaitzak baloratu behar dira.

## Beraz, aurrez ez bada lantzen inprobisazioaren mende gelditzen gara.

Adibide bat emango dut. Bileraren antolatzaileak ardura bere gainetik kendu du: "Bakoitzak nahi duen hizkuntzan egin dezala", eta erdaldunak daude! Ardura euskaraz egin nahi duenaren bizkar gainean jartzen du; bai, nahi dudana hizkuntzan egingo dut, baina batzuek ez didate ulertuko. ●

# Mundu digital bortitza



DIANA FRANCO EGUREN

**B**ilbon bazterkeria arriskuan dauden kolektiboekin lanean aritu nintzen bost urtez, arrakala digitalaren inguruan, batez ere emakumeekin. Bidean, bortizkeria matxistekin eta beste arazo askorekin aurkitu nintzen. Oso modu organikoan, indarkeria matxista pairatzen zuten emakumeekin lanean zebiltzan eragileekin harremanak izaten eta haien lana ulertzen hasi nintzen. Eragileen arduretariko bat zen erasotzaileek biktimen bizitzetan eragiten zuten kontrola, mundu digitalera eta gailuetara zabaltzen zena. Horregatik, helburuetako bat zen emakumeak teknologikoki boteretzea. Baina hainbeste dira emakume hauen beharrak, mehatxu egoera iraunkor batean bizita, hezitzaileak haien idazkari bilakatzen zituztela, osasun kontuetan, seme-alaben kontuetan, kontu legaletan...

Bortizkeria matxista gure gizartee-tako maila ezberdinetan pairatzen da eta kasuistika ugari ditu. Bazterkeria arriskuan dauden emakumeena gehien ikusten dena bada ere, ikertzaileak laborategian, politikariak sare sozialetan, ikasleak unibertsitatean... jasaten dituenak ere asko dira. Agian, azken horiei arnasa eman liezaieke eremu digitalean autodefentsa digitalaren inguruko informazioa aurkitzea, ulertzeko ez daudela bakarrik, gertatu zaienaren inguruan beste batzuekin hausnartzeko, norbere izaera eta egoera emozionalera egokitu-riko neurriak hartzeko. Baina emakume asko ez dira eduki horietara helduko, ez dute izango beren kabuz irtenbideak eraikitzeko baliabiderik. Hain da handia jasotzen duten zapalkuntza, euren inguru digitalak eskaintzen diena oso txikia dela. Eremu digitalean autodefentsa eta borroka digitalaren inguruan egiten den lana ez da eurengana helduko. Ezagutza euren munduetara hurbildu behar dugu. Irudimena gehiago piztu beharko dugu, hainbeste emakume zapaltzen dituen mundu digital bortitzean eragiteko. ●



Lasarte-Oriako Buruntza mendiko gurutze frankista eraitsi zuen Ernaik 2021ean.

## Mendietako gurutzeak, euskal kulturaren parte?

**AXIER LOPEZ**

**PP**ren eskutik iritsi da eztabaida Batzar Nagusietako Kultura Batzordera. Popularrek Eusko Jaurlaritzari eskatu diote gurutzeak Interes Kultureleko Ondasun izendatzeko. Arrasateko Udalatx mendiko gurutzetarra ezezagunek desagerrarazi eta bost astera eraman du gaia Batzar Nagusietara alderdi eskuindarrak.

PPren kalkuluen arabera, EAEn 140 mendik dute gurutze bana gailurrean. Popularren hasierako testua atzera bota zuten gainerako alderdiek eta testu berri bat atera da aurrera, jeltzaleen eta sozialisten babesarekin.

### GURUTZE KATOLIKOAK EUSKAL KULTURA-ONDAREAREN FUNTSEZKO PARTE DIRA

EAJk, PSEk eta PPK onartutako testuak bi puntu ditu. Lehenengoak honakoa dio: "Gipuzkoako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote azter ditzala gure mendien tontorretako gurutzeen osotasun materiala eta esanahia babesteko aukerak eta har ditzala euskal kultura eta ohiturak babesteko beharrezko erabakiak".

Bigarrenak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio "hiru lurralde historikoetako mendien tontorretako gurutzeen eta gainerako elementuen egoerari buruzko azterketa bat egin dezala kultura-ondarearen ikuspegiarekin, haien kontserbazio-egoeraren inbentarioa eta katalogoa egiteko, euskal kulturaren hain

esanguratsuak diren elementu horien osotasuna eta haien inguruko ohiturak babesten laguntzeko".

Bi puntuen aurka agertu da EH Bildu, eta Elkarrekin Podemosek bigarrena babestu du. Jeltzaleen Batzar Nagusietako bozeramaile eta Arrasateko zinegotzi Ander Garay Zabaletak adierazi du gurutze katolikoak "euskal kultura-ondarearen ezinbesteko zati" direla, eta horiek babestea "funtsezkoa" dela "herri gisa dugun nortasuna indartzen jarraitzeko".

### MENDIAK BABESTU, EZ GURUTZEAK

Eguzki talde ekologistak gogor kritikatu du Kultura Batzordearen erabakia eta "harridura eta amorrua" adierazi ditu: "Gurutzeak babestu? Eta mendiak? Hamaika dira gure mendietako biodibertsitate, paisaia eta, oro har, ondarea mehatxatzen dituzten proiektu energetikoak, abiadura handikoak...".

Eguzkik dio sinbolo erlijiosoek espazio publikoan jokatu behar duten rola ezbaian dagoela, eta kontziente direla gurutzeen inguruko eztabaidan ingurumena ez dela kontuan hartu beharreko irizpide bakarra, baina argi dutela mendi-tontorrek ahalik eta gehien soildu behar direla, naturalak ez diren elementuak kenduta. Gehitu dutenez, mendietako gurutzeak "euskal kulturaren osagai esanguratsuak direla" argudiatzea "aitzakia" da. ●

# “Hezkuntzak izan behar du patxadatsua”

MIKEL GARCIA IDIAKEZ DANÍ BLANCO / ARGIA CC BY-SA

**E**skolak bidegurutze inportante batean gaude eta erabakiak hartu behar dira, aldatzeko baino gehiago, hobetzeko, zeren aldaketa guztiak ez dira onak. Geratu eta hausnartu egin behar dugu, eta eskola bakoitzak ikusi behar du zer nahi duen, nora jo nahi duen, eskola guztiak ez dutelako zertan bide berdina hartu”, adierazi du Koldo Rabadan irakasleak, *Superbotereak. 10 urrats eskola eraldatze bidean* liburua egileak.

Liburua aurkezteko, ARGIAk mahai-ingurua antolatu du Larraulgo eskolan, non bestela, eta aukeratutako aretoa haurrez, gurasoz, irakaslez, herritarrez bete da, (hezkuntza) komunitate bizi baten adierazle. Larraulgo haurrek hasi dute ekitaldia, abesten eta gitarra, teklatura eta perkusioa jotzen. Segidan, solasaldiari ekin diote mahaikideek, Gorka Peñagarikano ARGIAko kazetariak gidatuta.

“Eraldaketa, berrikuntza... modan jarri diren hitzak dira, denak ari gara eraldatzen... baina nola? Zein aurrelanketa egin da? Egin al da aurrelanketarik? Beharretatik ari gara eraldatzen ala eraldatu behar delako?”, zirikatatu du Irati Manzisidorrek (Euskadiko Eskola Txikien koordinatzaileak): ongi etorria da aldaketa, “baina hausnarketaren ondorio izan dadila”.

Aldaketa horrek barrutik etorri behar duela gehitu du Maitane Telletxeak (Zizurkilgo Mendigain eskolako zuzendaria), “klastroak beharra sentitu duela, eta ez lege berriak hala dioelako”.

Hezkuntza gizartea eraldatzeko gai dela pentsatzea pentsamendu magikoa dela dio Yayo Herrerok, gogoratu du Nora Salbotxek (Amaiurko eskolako maistrak), eta aldiz, hezkuntzak mundua aldatzeko erramintak ematen dizkigula dio Marina Garcesek. Zein ekarpen egin nahi dio eskolak herriari, Euskal Herriari, zaintzari, naturari, gure arteko harremanei...? “Horretaz guztiaz gogoetatu dezagun”, dio Salbotxek, eta jar dezagun utopia helburu. “Gurasoei eurei galdetuko nieke, anonimoki, nolako eskola amesten duten euren seme-alabentzat”, adierazi du Rabadanek. Hausnartu, formatu, teorizatu, amestu eta probatu: teilatutik hasi etxea,



“Eraldaketa, berrikuntza... modan daude, denak ari gara eraldatzen, baina beharretatik ari gara eraldatzen ala eraldatu behar delako?”

gero errealtateak jaitsiko gaitu-eta, “baina gutxienez saia gaitezen”; bat etorri dira mahaikideak. “Zoragarria da proiektua teilatutik hasteko prest dagoen lantaldea izatea”, onartu du Salbotxek.

Eskolaren nortasuna, iparra, baloreak eta printzipioak zehazteko, lehenik gelditzea eta denbora hartzea komeni da, estresak eta presak bizi gaituen garaiotan. “Hezkuntzak izan behar du patxadatsua eta geldoa”, Manzisidorren hitzetan. Larraulgo eskolan halaxe egin zuten, geratu eta zer nahi zuten, nora jo nahi zuten eztabaidatu, “eta adostu genuen haur bakoitzak bere lekua aurkitu behar zuela eskolan, baita irakasleen kasuan ere, leku askotan ez haurrek ez irakasleek ez dutelako beren lekua topatzen, klastro ugari ikusten dituzu nekatuta eta ezkor; guk denontzako eskola nahi genuela erabaki genuen”, azaldu du Rabadanek.

## IRAKASLEAK AHALDUNTZEAZ

Klastroetan ikusten den zama eta nekea izan daiteke maiz eskolari eskatzen zaionalako dena soluzionatu behar duela, eta omnipotentziatik inpotenziara urrats bat dago, gehitu du Ainhoa Azpirozek (Hik Hasiko koordinatzaileak). “Itota gaude, kanpoko proiektuak gurera ekarri nahian, baina klastroari berari gehiagorik begiratuko bagenio, denei gehiagorik entzungo bagenie, gauza politak egingo genituzke, irakasle bakoitzak badu bere dohaina”, iritzi dio Telletxeak. Zentzu horretan, irakasleak ahalduntzeaz mintzatu da Manzisidor: “Irakasleok bagara nor, gure profesioaz filosofatzeko, pedagogiaz eztabaidatzeko”.

Hori bai, eskolak ardura asko dituela eta berak bakarrik ezin duela garbi dute solaskideek, herri proiektua dela behar dena, eta ikastetxeen, gertukoaren arteko elkarlana. “Baina elkartu eta ‘puf’, ‘tope-ra nabil’, ‘ez naiz iristen’ bada dinamika, ez du askorik laguntzen, ilusioz heldu behar zaio proiektuari; taldean terapia pixka bat egin dezakegu, baina mantsoago joango bagina eta lasai eztabaidatzeko tartea hartuko bagenu, ongi goazela sentitu dezakegu”, dio Rabadanek. Denbora falta dugula? “Betelana di-da egin, ez galdu horretan denborarik, eta benetan garrantzitsua den horretan zentratu”. ●

# TUNAGATE: MERKURIO PIXKA BAT NAHI ENTSALADAREKIN?

Atun latatan aurkitu diren merkurio kopuruekin asaldatuta dabilta herritarrak. Bloom erakundeak European egindako ikerketa baten arabera, Carrefour, Intermarché, Mercadona, Aldi... supermerkatu guztiek merkaturatzen dute atuna kutsaturik. Arrantza industrialak berehala gutxietsi ditu datuok. Izan ere, hedabide nagusiek erakutsiko ez dizuten beste arazo bat ere badago atzean: lobbyen presioa gu kutsatzen jarraitzeko.

## URKO APAOLAZA AVILA

**1** 48 atun lata hartu dituzte aleatorio 148 atun lata hartu dituzte, zozketaz eta aleatorioki, Alemania, Frantzia, Espainia, Ingalaterra eta Italiako supermerkatuetan. Eta laborategi independente batean aztertu ondoren, hemen ondorioa: denek dute merkurioa, denek. Hori da Bloom eta Foodwach erakundeek erakutsi berri dutena ikerketa batean. Munduko Osasun Erakundearen arabera, hamar produktu toxikoenen artean aurkitzen da merkurioa; Nazio Batuen Erakundearen esanetan, industrializazioa hasi zenetik itsasoan %200 handitu da bere presentzia. Baina eskandaluak ez ditu agintariak gehiegi larritu, izan ere, arrantza-industria boteretsuaren eta bere lobbyaren itzala suma liteke Bruselako ur sakonetan.

Gure lonja eta arrandegitan hamai-ka izen jarri diegu atun generoaren barruan sailkaturiko arrainei: hegaluzea edo atunzuria (*Thunnus alalunga*); zimarroia, atungorria edo hegalaburra (*Thunnus thynnus*); atun moja (*Thunnus obesus*); hegats-horia (*Thunnus albacares*)... Horietako gehienak kontserbalatatan ere merkaturatzen dira, saltoki-

kate handietan eta modu industrialean. Europa mailan egindako ikerketak produktu horiek aztertu ditu, eta egileek eman dioten izenburua bera esanguratsua da: *Du poison dans le poisson. Chronique d'un scandale de santé publique* (Pozoia arrainetan. Osasun publikoko eskandalu baten kronika), deitu diote.

Datuak esanguratsuak dira: azterturiko laten %10,3an europar legeak atunarentzat markatzen duen mugaren gainetik ageri da merkurioa, hau da, kiloko miligramo bat (1 mg/kg) baino gehiago. Zehazki, hamabost latetan gainditu da kopuru hori, eta kasuren batean merkurio kutsagarriaren presentzia laukoitza da -Parisko Carrefourreko saltoki batekoak 3,9 mg/kg eman du-. Gainera, Europar Batasunean itsasoko beste arraintzat orokorrean dagoen muga are zorrotzagoa da (0,3 mg/kg), eta hori kontuan hartuz gero, azterturiko laten %57 legoke legearen gainetik.

Baina larriena zera da, arestian esan bezala, gehiago edo gutxiago, lata guztiak daudela kutsatuta. Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, kontuan izaniki atuna dela European gehien saltzen den arraina. Frantziako Estatuan, esatera-

ko, pertsonako 4,9 kilogramo atun kontsumitzen da urtero. Horietako gehiena Indiako Itsasoan harrapatzen da, baina baita Atlantikoan eta Itsaso Barean ere.

## SELENIOAREKIN NAHASTU ETA... VOILÀ!

Arrantza-industria eta elikadura segurtasunerako erakundeak arrapaladan atera dira ikerlanaren emaitzak gutxies-tera. Esate baterako, *El País* egunkarian leitu ahal izan ditugu Aesan (Espainiako Elikadura Segurtasunerako Agentzia) eta Afanco-Cecopesca kontserba-entresen patronaleko ordezkarien hitz txit jantziak, esaten eurek egindako "milaka" inspekziotan balio seguruak atera zaizkiela, edo ziurtatzen atunak selenioa ere baduenez, gorputzak erraz eliminatzen duela merkurioa. Beste tokiren batean, Eroskiren *Consumer* aldizkarian kasu, diote latetarako erabiltzen den atuna txikiagoa denez merkurio gutxiago duela... Halako argudio xelebreak erabiltzeaz gain, ikerlanaren metodologia ere ezbaian jarri dute: "Txostenak alde baterantz egiten du eta ez dator bat errealitatearekin", esan du Cepesca atun-ontzien patronaleko buru Javier



Latetan kontserbaturiko atunak, kontzentratuago dagoenez, hiru aldiz merkurio gehiago izan dezake ikerlarien arabera, baina araudiak ez du halakorik kontuan hartzen.

GETTY

Garatek. Geroago hitz egingo dugu pertsona horren inguruan.

Parisen egoitza duen Bloom Gobernu Kanpoko Erakundea aski ezaguna da Greenpeace eta antzekoekin egindako ekintzengatik. Denbora darama atun-arrantzaren industrian gertatzen diren gehiegikeriak –ustelkeria orokortua eta arrantza-ontzietan esklabotza kasuak tarteko– ikertzen eta salatzen *Tunagate* deituriko erreportaje-seriean, eta oraingo pieza honetan ere sektorearen negozio-interesak jarri ditu luparen azpian, Alemaniako Foodwach elkarteak lagunduta.

---

**“Merkurio kutsadura masibo bati aurre egin beharrea gaude, autoritate publikoek atun-industriarekin eskuz esku lan egin dutelako hori horrela izan dadin”**

Julie Guterman, Bloom

#### **BI AUKERA: GU KUTSATU, EDO EZ**

“1970eko hamarkadaz geroztik badakigu, oso ziur gainera, atunetan dagoen merkurioa arazo larria dela osasun publikoarentzat. Haurdun dagoen pertsona batek pozoia jaten badu, bere odoletik joango da zilborrestera, hortik umekiaren garunera, eta kalte oso handiak eragingo dizkio”. Julie Gutermanek ahoan bilorik gabe hitz egiten du. Bera da Bloomek egindako txostenaren ikerlari nagusia eta *Ecoyako* hedabide ekologista independentearen atarian zintzilaturiko bideo labor baten bi-

**ZINKUNEGI OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

f i

dez aurpegia eman nahi izan du, azaltzeko arazoa norainokoa izan daitekeen: “Mercurio kutsadura masibo bati aurre egin beharrean gaude, autoritate publikoek atun-industriarekin eskuz esku lan egin dutelako hori horrela izan dadin”, salatu du.

Gutermanek pausoz pauso azaltzen du zein izan den agintarien jokabidea: “Bi aukera zituzten: edo atunetan baimendutako mercurio kopuruaren muga zorroztu eta gure osasuna zaindu, edo atun guztia merkaturatzen jarraitu neurriara egindako araudi batekin, kutsadura dena dela ere atuna saldu ahal izateko”. Bistan da bigarren aukeraren alde egin zutela.

Gaur egun, Europar Batasunean bakailaoa, antxoa, sardina eta antzeko espezieetan 0,3 mg/kg-ko mercurio muga dagoen bitartean, atunarentzat 1 mg/kg-koa dago, baina zifra hori ezartzeko ez da erabiltzen mercurioak helduen eta haurren osasunean dituen ondorioak neurtuko dituen metodorik. “Atunetan dagoen mercurioa ez al da bakailaoan edo sardinetan dagoena bezain toxikoa? Hau ez da batere logikoa”, dio. Afera are larriagoa da kontutan edukita muga hori arrain freskoarentzat dela. Ikerlariaren esanetan, kontserbatan generoa kontzentratuagoa denez, hiru aldiz mercurio gehiago egon liteke.

## BERMEOTIK BRUSELARA

Logikarik gabeko salbuespen hori esplikatuz liteke, soilik ulertuta nolako indarra duen arrantza sektorearen lobbygingtzak Bruselako eta munduko elikadura foro garrantzitsuenetan. Ikerlanerako, NBERen Elikadura eta Nekazaritza Erakundeak (FAO) eta Munduko Osasun Erakundeak (MOE) hamarkada askotan egindako araudiak alderatu dituzte, eta ikusi dute arau horiek idatzi dituzten adituen batzordeetako kide askok interesak dituztela atunaren industrian.

1963an bi erakundeek elikadurari buruzko *Codex Alimentarius* araudi-bilduma sortu zuten. 1985ean kodize hori eguneratzen zuen batzordeak deliberatu zuen “zenbait arrain predatzailerentzat” –tartean atuna– nahikoa zela 1 mg/kg-ko mercurio muga jartzea. Bloomen esanetan, “lantalde horretako hiru kideetatik bat, industriaren interesak defendatzeko zegoen han”. Horrela jokatzen dute gure osasunarekin.

Halako eta antzeko beste hamaika presio- eta amarru-bide aipatzen ditu GKE ekologistak txostenean. Eta atun-



**ERANTZUNIK GABE** Julie Guterman Bloomeko ikerlariak Frantziako Elikadura Zuzendaritza Orokorrari galdetu dio ea egia den 50 kontrol besterik ez dituztela egiten urtean; ez du erantzunik jaso.

industriaren gorenean daudenei ere erreparatu die, bereziki Pesca España elkarteari. Zein da bere burua? Javier Garat, patronaleko gure gizona.

Bermeon egoitza eta lantegiak dituen Albacora SA atun-ontzien enpresako akziodun eta idazkaria da Garat, eta karguak han eta hemen biltzen ditu. Esaterako, Europako arrantza sektoreko “lobby boteretsuena” den Europêcheko presidentea ere bada. Europêche eza-guna da itsasoko biodibertsitatearen galera gutxitzeko EBren politiken aurka egiteagatik. InfluenceMap klimaren ikerketa zentroak, nota txarrean atezatzen duten petrolio eta meatzaritza lobbyen ondoan kokatu du, hain zuzen. Garat bezalako jendeak maneiatzen ditu Bruselako hariak eta hango erresonantzia kutzak hedabideetan.

## LASAI... BAINA EZ JAN EGUNEAN HIRU LATA


Bloomek mercurioa eta atunari buruzko bere ikerlana ezagutzera eman eta egun gutxitara, azaroaren hastapenetan, Frantziako astekari eskuindar eta islamofobo nagusienetakoa den *Le Point*-eko erredakzio-buru Géraldine Woessnerrek mezu irmoa idatzi zuen sarean: ikerketa *fake* bat da, eta France TV eta antzeko medio publikoei eskatzen zien oihartzunik ez emateko. Bere esanetan “lasai” egon gaitezke, Japonian jaten delako inon baino atun gehiago, eta dakigunez japoniarrak dira bizi-itxaropenean txapelkun... Akabo zalantzak eta eztabaidak. Gainera, kazetariak mezuan

argitzen digu ez dela ezer pasatzen egun bakarrean “hiru lata atun irensten badi-tuzu”, inportanteena da gainerako egunetan zentzuz jokatzea: “Biometatzea da epe luzera gorputzean arazoa sortzen duena”. Bera behintzat lasai geratu da, hori esan eta gero.

Mercurioaren kalteak ezagun egin ziren 1880ko hamarkadan AEBetan *Kapelgile Eroen* gaitza zabaldu zenean –jantzien industrian ohikoa zen mercurioa erabiltzea materialak garbitzeko-. Geroztik, kutsatze masibo larriak gertatu izan dira: 1930eko hamarkadan, Japoniako Minamatako bahian enpresa baten isuriaren ondorioz hango arraina jan zuten milaka lagunek sintoma larriak izan zituzten. Iraken, berriz, 1970eko hamarkadan metilmercurioarekin kutsaturiko zereala jan zuten herritarrek gosete batean, ekibokazioz.

Gaur egun, ustez, kontrolak zorrotzagoak dira. Eta mercurioa hagineta-ko txantxarrak betetzeko erabiltzeari aspaldi utzi zitzaion. Badakigu metilmercurioa neurotoxiko arriskutsua dela haurrentzat, eta metatzen denean nerbio-sisteman, sistema-kardiobaskularrean eta immunologikoan eragin dezakeela. Badakigu kartzinomak sor ditzakeela. Badakigu, ez gaudelako XIX. mendean. Julie Gutermanek argi diosku berriz ere: “Eskatzen duguna da apalategietatik pozoia kendu dezatela, eta utz diezaiotela etekinak ateratzeari gu mercurioarekin kutsatzearen ordainetan”. XXI. mendean gaude. Badakigu, eta badakite. ●

# DURANGOKO AZOKA **denonizat!**



# Cristina Osés

EUSKARAREN DEMOKRATIZAZIORANTZ



## JAKIN NAHI DUT NOLA DESERAIKI DAITEKEEN EUSKARAREN AURREKO INDIFERENTZIA



2022an egin nuen topo Cristinarekin lehen aldiz, Eusko Ikaskuntzak antolaturiko *Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa Nafarroan* proiektuaren baitan. Nafarroa Garaiko errealitate soziopolitikoaren ordezkari-edo ginen zortzi gazte elkartu eta batzen eta bereizten gaituzten aferez aritu ginen eztabaidan. Cristinarendik ikasi nuen gehien egun haietan.

 AMETS ARANGUREN ARRIETA  JOSU SANTESTEBAN / ARGIA CC BY-SA

### Nondik heldu zara hona?

Gure etxea oso etxe politiko eta militantea izan da beti. 18 urterekin Azkoiendik Iruñera etorri nintzenez, energia eta interes hori guztia modu askotan bideratzeko aukera suertatu zitzaidan. Testuinguru militantean hezi izanak ardurak era altruista batean hartzeko eta bizitza proiektu politikoei eta sozialei lotzeko gogoia eman dizkit.

Modu diferentetan bideratu nuen energia hori unibertsitate garaian: egon nintzen ikasle mugimenduan sartuta, estatu mailan koordinatu nintzen, heldu ziren ere mugimendu feministaren grebak... Ulertzen dut beste gazte batzuek

euren energia garapen kulturalari edo artistikoari lotutako proiektuetan jarri izana, baina nik kalean egon nahi nuen. Kulturalagoa zen nik euskararen inguruan ezagutzen nuen militantzia, Azkoiengo: Olentzero Elkartearen bueltako jendea eta seme-alabak A ereduari matrikulatuak zituzten gurusoak. Nik ez nuen nire burua euskaltzaletzat, ez nekielako zer zen euskaltzale izatea. Baina sentitzen nuen euskararen aldeko edozein aldarrikapen egiteko zilegitasuna niri ere bazegokidala.

**Euskararen aldeko borrokaren nolakotasuna zen hor militatzeraz**

### motibatzen ez zintuena?

Uste dut nire testuinguruarekin duela lotura gehienbat. Langile klaseko emakume gaztea naiz eta horrek baldintzatu du dena. Euskararen kontua ez nuen lehentasun gisa ulertzen gazteagoa nintzenez, ez nuen sentitzen nire energia guztia horretan emateko auzi gisa.

Beranduago heldu zen mugimendu euskaltzalearekin lotura. NUPen ikaskide izan nuen Jon Zapatak zirikatzen ninduen tarteka gaiarekin eta Euskaltzaleen Topagunetik nirekin harremanetan jarri zenez hasi zen nire euskararekiko berradiskidetze prozesua. Berradiskidetu diot unibertsitatean izan nuen espe-





# Cristina Osés Zudaire

AZKOIEN, 1994



Oso familia politizatuan hezia, A eremuan matrikulatu zuten gurasoek herriko eskolan. 18 urte zituela etorri zen Iruñera, NUPen Soziologiako gradua egitera. Partaidetza eta Komunitate Garapena masterra egin zuen gero EHU eta egun gizarte-ikerketan eta proiektu teknikari dabil Innicia elkartearen. Orain arteko bizitzaren zati handia eskaini dio jardun militanteari, izan komunismoaren edo feminismoaren bueltan, edota euskarari beranduago.

rientziak sentiarazi zidalako ez nuela borroka horretarako balio, ezin nuela ekarpenik egin ez nekielako euskaraz eta, gainera, ez nintzelako ikasteko ezer egiten ari. Profil batzuen aldetik ez nuen nire burua zilegiztatua ikusten eta paso egitea erabaki nuen.

2021ean Topagunean izandako esperientzia horren ondotik hasi nintzen buruari bueltaka eta ordutik nire bizitzan transbertsala da gaia. Aurten euskaltegian matrikulatzeko hautua egin dut.

## Zerk motibatzen zaitu egun?

Bere momentuan borroka horretatik aldenarazi ninduen gauzetako bat da gaur egun gehien motibatzen naue-na: alderdi kulturala. Euskaraz diren espazio publiko jakin batzuetara sartzeko aukerak motibatzen nau gehien. Zilegitasunari lotutako beste gauza funtsezko bat ere aipatu nahi dut. Esan dudana bezala, emakumezkoa naiz eta gaztea, eta horrek erabat zeharkatzen nau. Zilegitasun bila nabil uneoro, bizitzaren esparru guztietan. Zilegitasuna eta errekonozimendua. Balioespena, hori da hitza. Gustatuko balitzait ere, ezin dut ukatu.

Euskararen alde agertzen naizen aldiro, inguruan ditudan lagun batzuek “Cris, oso ongi, ekarpen hau beharrezkoa zen”, esaten didate. Eskerrak horiei!

## Nor da zentzu horretan zuretzako autoritatea?

Asko pentsatu dut horretan eta ez dut pertsona bat edo beste identifikatua, baina uste dut entitate edo sektore zehatz batzuek erresistentzia handiagoa dutela euskararen komunitatearen irekierari dagokionez. Diskurtsiboki agian.

Eremu ez-euskaldunetan aurrera egiteko urratsei dagokienez, komunitate euskaldunak baino askoz ekarpen gogorragoak egin izan ditut nik. Horren bueltan Euskaltzaleen Topaguneak egindako azken diagnostikoen ondorioetan askoz gogorrago izan nintzatekeen, adibidez. Hizkuntza eskubideak bermatzeko bidean aurrera egin nahi badugu, Erriberako lokatzetara jaitsi behar dugu.

## Ea, lokatzetara jaistearena interesatzen zait.

Ez dut lokatzaren kontua nahi bezainbeste garatu oraindik eta sentitzen

dut leku guztietan gauza bera ari naitzela esaten, baina nire ustez tokian tokiko errealitateari egokitzen zaizkion helburuak finkatu behar dira, inguru sozialari garrantzi handia emanen diotenak, inguru hori baita biharko egunean euskararekiko jarrera bat edo beste hartuko duena. Askotan ezin da hizkuntza eskubideen diskurtsoarekin joan leku guztietara, jendea aspertzen delako. Batzuetan ezta *bertako* hizkuntza izatearen argudioarekin ere.

Iruñea bada hein batean nafar jendartearen polarizazioaren erakusle. Espazio batzuk batzuenak dira eta beste batzuk besteak, eta hori errespetatzen da. Baina uste dut bi aldeek ez dutela benetan elkar ezagutzen.

## Errespetu dei al dakioke horri?

Horrela ulertzen du jende batek, baina berez bi esparruetako batek ere ez du benetan bestea ezagutzen. Hemen, bi esparruetakoek dute hezkuntza aldetik, sozialki eta kulturalki garatzeko aukera, eta horri esaten diot nik elkarrekiko errespetua. Hau da, pertsona bakoitzak dituen baldintza eta aukera ekonomikoak dituela, nahi duen norabidean gara dezake bere bizitza, eta hori errealitate bat da [Iruñean].

Badakit euskaldunek oraindik ez dituztela zerbitzu publikoetan euren hizkuntza-eskubideak bermatuta, haur eskolen borroka ere martxan dela... Baina bai komunitate euskaldunak bai erdaldunak ere, badute aukera normalitatearen barruan garatzeko eta minimo batzuk bermatuta izateko.

**Elkarbizitzari tiraka, komunitate batekoak dira beste komunitatearen formetara egokitzeko gai. Alderantziz ez. Nola?**

## Hizkuntza hautua elebakarrek bakarrik baldintzatzen dute.

Ez naiz horretaz ari. Esan nahi dudana da gure inguru sozialak hezten gaituela eta inguru sozial horrek arau batzuk dituela. Zu inguru euskaldun batean hezi izan bazara baduzu tesuinguru kultural, sozial eta militante jakin bat. Eta Elizaren eskola kontzertatu batean ikasi baduzu, beste bat. Nik aipatzen dudana da bakoitzari uzten zaiola ahal duen moduan garatzen. Baina hemen ez da existitzen elkarbizitza arazo erreal bat euskal

komunitateak egin ditzakeen salaketa zilegi horiez harago.

### **Baina, orduan, zentzu horretan elkarbizitza posible egiten dutenak batzuk bakarrik dira.**

Bai eta hor beti galduko du euskal komunitateak. Baina euskal komunitatea oso indartsua da hemen eta badu gaitasuna bere egitura propioak garatzeko, izan ere, praktika horiei esker ari da geroz eta gehiago hedatzen.

Kontua da, lokatzarenera itzulita, Erriberan ez direla bi talde horiek existitzen, ez dagoela gaitasunik horietako bat garatzeko. Euskararen alde egiten diren planteamendu batzuk entzuten ditudanean iruditzen zait egiten direla tokian tokiko errealitateak kontuan hartu gabe.

Bi komunitate hauen arteko talka dagoenean, babes instituzionalaz ari bagara, beti aterako da galtzaile euskalduna. Baina Iruñean euskal komunitatea oso harro dago eta oso indartsua eta aldarrikatzailea da. Hori da Erriberan hauspotu behar dena. Beste leku batzuetan euskal komunitateak garatzeko eta bere azpiegitura propioak sortzeko duen gaitasuna, Erriberan ez da izanen 40 urte barrura arte.

### **Horregatik exijitzen zaie instituzioei.**

Bai, ulertzen dut. Baina lehentasunez mintzo garenean, nik ezin dut permititu Erriberako biztanleriaren euskalduntze prozesua konfrontazio linguistiko gisa hautemana izatea.

### **Noski, noski.**

[Barreak]. Nik zera uste dut: ni lau ur-



“**A eredia funtsezkoa da euskarak oraindik zilegitasunik ez duen lekuetan, euskara bere ikusten ez duen jendearendako**”

tetan gai banaiz euskaraz elkarrizketa bat mantentzeko, egon nahi dudan espazioetan egon ahal izateko eta lortu nahi dudan zilegitasuna lortzeko, egin beharrekoa egina dut. Niretzat hizkuntzaz aldatzea ez da sekula arazoa izanen, ez dut inoiz bizi izan printzipio batzuei uko egin behar izatearen sententziotik. Kontua da diskurtso hori nire herrira eramatea izugarri konplexua egiten zaidala.

**Erriberako lokatzetara jaistearena nondik egin behar da, bide emozionaletik ala hizkuntza eskubideetatik?**

Nire ustez biak behar dira. Ez dago botoi magikorik. Begira, Iruñeko Laba elkar-teak migratzaileekin duen proiektuarekin enpatia handia sentitu nuen. Iltzatu-ta geratu zitzaidan elkar-tearen izenean Yasmine Khrišek bota zuen esaldi bat: “Guk transmititu nahi dugu Iruñea Pamplona baino dibertigarriagoa dela”. Haurtzarora itzultzea bezala izan zen niretzat. Euskara dibertigarria zen, berri-tzailea, aurrerakoia, oso *guay*-a eta eskolan egiten zen gainontzeko-arekiko desberdina oso, beste mundu baterako giltza.

Baina nola heltzen da horra? Nire ustez, funtsezko bi zutabe daude. Batetik, tokian tokiko errealitateari egokitutako helburuak behar ditugu, ulertuta batzuek eta besteek oso harreman desberdina dugula euskararekin. Bestetik, ez



da bertako euskaltzaleok anbizio txikiagoa dugunik, kontua da guk ikasi dugula euskara bizitzen bere existentzia hutsa aldarrikatuz.

### Zein da une honetan lehentasuna?

Euskararen ez alde ez kontra dagoen nafar jendartearen %30arengana jo behar dugu. Ez da posible halako pasioa sortzen duen mugimenduaren aurrean, biztanleriaren horren ehuneko handiak interesik ez izatea. Horretaz aparte, euskararen kontra dagoen %30 hori ez da inoiz alde agertuko, eta nik ez dut *“que vienen los vascos”* dioen inorekin joka aritu nahi, ez zait jende hori interesatzen.

Nire lehentasuna ez da jendeak ulertzea nik badudala eskubidea Azkoienen medikuak euskaraz arta nazan; lehenengo zera nahi dut, Azkoienen normalitatearen barruan ikus dadila haurrak D ereduan matrikulatzea. Eta horrekin ez dut esan nahi zerbitzu publikoetako eskaera hori ez dudarik zentzuzkoa ikusten, baizik eta nik ezin dudala horrik hasi.

### Beti entzun izan zaitut A eredua ez alde.

A ereduak da hazia, baina aldi berean, A ereduak haur frustratuak ere sor ditzake. A ereduak ez duenez euskalduntzen –eta, beraz, haur horiek ez dakite ongi euskaraz–, gero gerta liteke haurrok aurpegiratzea gurasoei D ereduan matrikulatu ez izana. A ereduak funtsezkoa da euskarak oraindik zilegitasunik ez duen lekuetan, euskara *bere* ikusten ez duen jendearendako.

Oso agerikoa da hori. Eguberrietan Olentzero kalera ateratzen duten herrietan A ereduko gurasoen inplikazioa handiagoa izan ohi da, gero Euskararen Egunak heldu dira eta horien ondotik

D ereduak. Azken finean, zera uste dut, Amets, toki horietan euskararen alde apustua egiten duen jendeak beste herritarrek baino ahalegin handiagoa egin behar duela jendea euskarara hurbiltzeko, eta gauza batzuei uko egin behar die. Polikiago joan behar da, Erriberan ez dago beste aukerarik.

### Zertan ikusten duzu zure ekarpena?

Nire inguruko jende konkretu baten gain pentsatzen dudanean, sentitzen dut nire lana dela euren seme-alabak, inoiz izanen badituzte, D ereduan matrikula ditzatela. Nola egingen dut hori? Nola salduko dut hori? Askotan ez dut jakiten zein argudio erabili. Jakina, azaldu behar dut euskarak ez dizula deus kentzen, gehitzea besterik ez dela.

Erriberan euskararen auzia erdiguneari jarri nahi dut euskal komunitatearen hizkuntza eskubideak zabal daitezen, baina ez dut inolako interesik Erriberan eztabaida hau hizkuntza eskubideen markoan kokatzeko, jendea ez zaiolako hori axola.

### Euskararen demokratizazioaz hizketan entzun zaitut maiz. Zer da hori?

Mundu guztiak izan beharko luke aukera euskara ikasi eta inguru euskaltzalea izateko. Horregatik nago hain temakua tokian tokiko proiektuekin. Jende askok urteak daramatza fin-fin lanean, Errigora da adibiderik argiena. Izugarrizko lana egiten dute eta ez dut lan eredu horrek inolako kritikarik, baina jendartearen sektore batera heltzen den praktika bat da.

Niretzat demokratizazioa da Nafarroa Garaian jende guztiak izan dezala aukera euskarak duen garrantziaz jabetzeko. Dena den, zalantzarik gabe, administrazioari ere exijitu behar zaio

erabakiak hartzea. Euskara ikasteko instituzio publikoek egiten duten boluntarismoaren sustapena ez da hizkuntza politika. Izan daiteke sustapen edo sentibilizazio kanpaina bat, baina sekula ez datu soziolinguistikoak eraldatzeko apustu erreala.

### Zerk barnebiltzen ditu zure militantzia-eremu guztiak?

Beti galdetu izan diot nire buruari zergatik jendeak pentsatzen duen pentsatzen duena, zergatik dagoen dagoen lekuan. Unibertsitate garaian ez nuen ulertzen zergatik jendeak ez zuen militatzen ikasle mugimenduan. Orain, beste ikuspegi eta espazio batzuetatik begiratuta, nire obsesioa da ulertzea nondik abiatzen den pertsona bakoitza euskararen aferan. Euskararekiko kontraktasuna nola deseraiki jakin nahi dut, baina, batez ere, jakin nahi dut nola deseraiki indiferentzia.

### Ez dakit zerbait gehitu nahi duzun.

Azken gauza bat, bai. Asko pentsatu dut zein izan daitekeen nire ekarpena euskalduntze prozesuaren inguruko eztabaidetan, eta sarri errepikakor sentitzen naiz Erriberaren aferarekin eta helburuak jartzearekin.

Erriberari buruzko eztabaida honetan, nire lana ez da euskal komunitateak beti izan dituen praktikak eta diskurtsoak berrestea eta legitimatzea. Nik beste ikuspegi batzuk ekarri nahi ditut, eta horiekin euskalduntze prozesua azkartu.

Saiatzen naiz ulertzen zergatik nire inguruak ez duen egiten euskararen aldeko apustua; eta, batez ere, zergatik euskara indiferente zaion biztanleriaren %30ari. Beharbada, hain zuzen ere, praktika eta diskurtso batzuk zaharkituta daudelako. ●

2024KO  
ABENDUA  
ARRANTZALE  
AUZOA

# 30. EUSKAL AZOKA

◆ HONDARRIBIKO ◆



HONDARRIBIA  
EUSKARAZ

Blagän  
HONDARRIBIKO EUSKARA ELKARTEA


LIBURU, DISKO ETA  
PRODUKTUEN POSTUAK 12 → 15

**Osteguna 12** MANTTALINGO ALABA IKUSKIZUNA  
Kultur Etxea, 19:30

**Osteguna 13**  
39. Bordari eta Satarka Literatur Lehiaketako lanen  
Sari Banaketa. Aurkezlea: Arantxa Urretabizkaia  
Itsas Etxea Auditoriuma, 18:30

GALBAHEA. EZ GARA DENA AHAZTEKO NAHIKOA.  
Itsas etxea, 19:30

**Larunbata 14** OLATZ SALVADORREN kontzertua  
Itsas Etxea Auditoriuma, 19:30 (10€)



## Durangok dakarrena



KARMELO LANDA  
HISTORIALARIA

**E**gotea egitea da. Hala dio aurten Durangoko Azokak, eta egia da, azokaren beraren kasuan behintzat eta Euskal Herria aintzat hartuta. Dagoeneko 59. azoka da aurtengoa, eta urtero egote hutsak frogatzen du euskara, euskal kultura, euskal nazioa egiteko modua dela Durangoko Azoka.

Azokaren izena eta izana aldatuz joan dira, baina norabidea zehaztuz. Aspaldiko 1965. urtean, sortu zenean, “Euskal liburu eta disko azoka” zekarren kartelean, gero izena murriztu egin zaio, Durangoko Azoka, baina izana zabalduz joan da, eta Kulturaren Plaza ere deitua izan da. Azken urteetan DA akronimoak laburbiltzen du izena, baina edukia zabalduz eta sakonduz doa, norabidea zehaztuz.

Zer dakar aurten Durangok? Uste dut aurrera urratsa egiteko moduko berrikuntzak agertuko direla. Liburu eta diskotik euskal kulturaren arlo desberdinetara salto egin du XXI. mendearekin, baina orain kulturaren eremutik haratago salto berria emateko puntuan dagoela esango nuke, eta saiatuko naiz hori azaltzen.

Izan ere, euskal komunitatearen etorkizuna aurretik prestatu eta trebatzeko laborategia kontsidera daiteke Durangoko Azoka. Liburu eta diskotatik hasi bazen, ikus-entzunezkoen eremura hedatu da gero, teknologia

Euskal Herri osoan,  
euskaldunon  
komunitatearentzat  
habitat egokia sortzea  
da ezinbesteko  
urratsa orain

berrietara, pantaila eta plataforma desberdinetara, eta adimen artifiziala ere ate joka dauka. Euskal kulturaren eremuan *habitus* bihurtu zaigu azoka, baina laborategia izaten jarraitzen du, gune zehatz batean eta egun kopuru mugatun. Frogatu egin du euskal kultura gai dela bere kultur polisistema propioa osatzeko, horretarako ezinbesteko diren osagarriak badituela: sortzaileak, instituzioak, errepertorioak, produktuak eta merkatua, eta azkena baina ez garrantzian txikiena, kultura hartzaileak.

Laborategiko entseguaren emaitzak baikorrak dira, bai. Baina orain eguneroko bizitzara jauzi egin behar da. Euskal Herri osoan, euskaldunon komunitatearentzat *habitat* egokia sortzea da

ezinbesteko urratsa orain. Horixe izango da pausu erabakigarria. Eta zer izango da *habitat* hori, bada? Euskal nazioa bera. Euskal nazio demokratikoaren antolaketa burutu beharra dago. Eta uste dut norabide horretan mugitzen hasiko dela Durango aurten. Zergatik diodan hau? Azken urteotan azokaren programazioak dimentsio oso handia hartu du, kultura polisistemaren neurri zabala agertzen duena, eta aurten kulturatik nazio antolaketara jauzia iragartzen duten arloak agertuko dira azoka inguruan.


Lehen aldiz, Naziogintza elkarte eraginkorrak abenduaren 5etik erakusmahaia jarri eta lanen aurkezpenak burutuko ditu abenduaren 6an. Horrez gain, abenduaren 7an eguerdiz Euskal Herri osoan garatzen ari den *Bat Gara* prozesuak nazio mailako lehen agerpena egingo du Durangon, eta 7an arratsaldean Euskal Herriaren Euskaraz erakunde herritarrak mobilizazioa deitu du, mailan gora egin eta espresuki eta argi azalduz: “Euskaraz bizitzeko, Euskararen Errepublika behar dugu”.

Liburu eta disko azokatik euskal kultura polisistema osatzera, *habitus* izatetik *habitat* propioa osatzera, eta Durangoren arrakastatik Euskal Herriaren nazio antolaketara doan bidean abiatu garela dirudi. Durangon ikusiko dugu ea horrela den. ●

# Biraka jarraitzen du gurpilak



TERE MALDONADO  
FILOSOFIA IRAKASLEA



DOM CAMPISTRON

**G**ogoratzen al duzue? Legebiltzarreko %90ak onartu zuen Hezkuntza Akordioa duela bi mende –barkatu, bi urte-. Ezkerraren biltzarkideen erreakzioa euforiaren eta neurriko gogobetetasunaren artean mugitu zen. Onarturiko dokumentuaren arabera, zentro pribatuek diru publikoa jasotzen jarraituko zuten, beti ere legeak ezartzen dituen printzipio eta helburuak betetzen baldin bazituzten, hark eskatutako “konpromiso eta betebeharrak bere gain hartuz”. Zati hori urratu aurretik, Hezkuntza Sailak dokumentuan jasotakoari muzin egin eta hitzarmena itxi zuen Google multinazionalarekin. Legebiltzarreko akordio “historikoaren” ostean legea atera zuten oposizioaren babesik gabe. Zirriborroetatik, akordioa; akordiotik, legera; legetik, errealitatera. Egileek ederki despistatu zuten ezkerre eta zorieko Akordio historikoak oihartzuna dauka oraindik bi mende geroago. Badakite propaganda maneiatzen. Hezkuntza publikoa oso kolpatuta atera zen trantzetik. Baina, badakizue, gaurko saila ez da garai hartakoa (ordu sailburuordea sailburua da gaur, besterik ez).

Oraingo lehendakariak euskal erakundeetan burokrazia murrizteko plan bat eskatu du. Burbuila burokratikoak

puztu ostean, plan bat eskatzen dute eurek gizendutakoa arintzeko (barkatu, beste batzuk dira). Noski, baten batek inplementatu beharko du plana, eta baten bati kontraturik, konbeniorik edo dena delakorik egin beharko zaio. Eusko Jaurlaritzak eta Microsoftek lankidetzaz hitzarmena sinatu dute aurrean, zibersegurtasunari eta hezkuntza digitalari buruz (ikus bideoa, multinazionalaren ordezkaria adurra dariola dago). Zenbat urte daramatzagu gailu digitalak ikasgeletan sartzen amen-omenka, irizpiderik gabe? Ikasle eta langileon zenbat datu jarri dituzte informatikako erraldoien esku? Zenbat diru publiko eman diete Eusko Jaurlaritza *desberdinek*? Zenbat beharko da orain zatarkeria konpontzeko? (adi, erraldoi berberei pagako diete berriro!).

Eusko Jaurlaritza *desberdinak* hezkuntza berrikuntzaren abangoardian egoteaz harrotzen dira, digitalizazioaren arloan ere bai. Bada, erabiltzen dugun teknologia digitala VII. mendekoa da eta programak zintzilikatu egiten dira txitean-pitean. Ikasleen notak txertatu beharreko aplikazioak, itsusia eta deserosoa izateaz gain, ez du lana errazten, aitzitik, izugarri zailtzen du. Benetan gure lana den hori amaitu on-

doren (azaldu, zalantzak argitu, ebaluatu, kalifikatu) egonarriz hartu eta orduak dedikatu behar Jaurlaritzaren aplikazio ikaragarrian berriro sartzeko jada beste nonbait sartu ditugun kalifikazioak, sailak ez duelako datuen iraulketa egiteko tresna informatikorik (VII. mendeko teknologia, badiotsuet, lankide batzuek ordenagailuak piztean kantu gregoriano urrun bat entzuten dutela diote). Zer dela eta emango ziguten aukera gure lanari berriro ekiteko eta hurrengo ebaluazioko kontuekin has-teko? Hobe buru-makur jarraitzea, jainkosei erreguka programa ez dadin zintzilik geratu, kontu handiz ez okertzeko (erraza dena, 21:00etan egun nekagarri baten ondoren eta programa kaskar eta zaharkituarekin). Baina, diot nik, aplikazio horiek norbaitek diseinatu eta ezarriko zituen, eta ez zuen musu-truk egingo, aurreko Eusko Jaurlaritza *batek* ordainduko zion. Zenbat denbora hartuko du Jaurlaritza *berriak* milioietako hitzarmena ixteko korporazio batekin, irakasleok behar bezala lan egiteko tresna informatikoak izateko? Eta eskertuko ez diegu ba, egiten badute! Kate motzean lotu gaituzte. Propaganda maneiatzen ez ezik auzolana egiten ere badakite (ala gauza bera da? Hainbeste bira eginda, nahasturik nabil)... ●



MAIALEN ARTEAGA  
KAZETARIA

## Barruko zera honi

**B**arruan dudana *zera* honi idatzi nahi-ko nioke. Pandemiatik ia bost urte beteko dira, eta garai hartan gazteak ginenak hasi gara, gazte izaten jarraitzen badugu ere, bestelako espazio batzuetan orbitatzen. Etxebizitza, bizi proiektua, amatasuna, lana, osasuna... elkarrizketetako gai ordenak bestelakoak dira orain. Bost urte atzera eginez gero, nork bere bidea hartu du ("*ez beste inorena*", dio Katamalok).

Ingurura begiratu eta noizbait pentsatu izan dut, nik ere beharko nukeela suhartasuna esnatzeko moduko zaletasun propio bat, nire-nirea eta *ez beste inorena*. Zerbaitetan ona izan, kanalizatu nire kezka *krosfitean* edo beste edozein kiroletan, musikan, edo akaso, lan munduan eskalatu eta urtez urte soldata handiagoa izateko aspirazioak gida nazala hautatu. Arrakasta pertsonala bizi proiektu bezala. Errazagoa litzateke dena horrela, seguru. Pasio propio bat, *ez beste inorena*. Barruko *zera* hori haratago doa, ordea. Altxor bat da; munduko diskurtso distopikoek, indibidualismoaren hegemoniak edo etorkizun ezaren oratoriak lapurtu ezin didatena. Nire altxorra da, baina batez ere, beste askorena da, kolektiboa da. Militantzia politikoak eskaini didan *zera* honek mundua ulertu eta berri baten alde bidea egiteko heldulekuak eskaini dizkit. Ez dira

mundua edo Euskal Herria irakurtzeko betaurrekoak, betaurrekoak jantzi eta erantzi egiten dira eta. Orain, *zera* hori nire begiak eta begirada dira, orain ez dago ikusgairik ikuskera honetatik kanpo, eta eskerrak. Miresgarria iruditzen zait norbere zilborra baino handiagoa den zerbaitek, kolektiboa den zerbaitek, bizitza gidatzen duenean. Ariketa eta apostu iraultzailea iruditzen zait are-riotasun, lehiakortasun eta neoliberalismoaren muturreko adierazpenen lekuko garenetan, norbere burua besteen burua salbatuz salbatzen dela ulertzea. Pena ematen dit besteengan antzeko zerbait aurkitzen ez dudanean, hain da handia altxor hau... Frikizat izango naute askok, zerbaitetan sinistea, amestea eta proiektu politiko eta kolektibo bati en-gaiatzea ez baitago modan, ez du *hype*-ik sortzen. Baina, ez gara ari korrontearen kontra igerian korrontearen kontra igeri egite hutsagatik, korrontea gure alde jartzeko baizik.

Eskerrak militantzia politikoari, eskerrak nire zilborrera begiratzean herri bat ikustera eraman nauen eskola kolektiboari, eskerrak nirea den eta aldi berean beste askorekin batera konpartitzen dudana etxeari. "*Guk erabakia hartu dugu. Orain ekidin ezin dezakezuen zerbait gara*", dio Mikel Sotok. Eta hor ikusten naiz, ez beste inon. ●

## Ikusezin



LEIRE NARBAIZA  
ARIZMENDI  
IRAKASLEA

**T**abernan zaude, barran, eskatu nahian. Mostradoarean beste pertsona batzuk ere berdin. Laster izango da zure txanda, baina zuri tokatu arren, zerbitzariak ez dizu galdetu ea zer nahi duzun, salto egin dizu eta zure atzean etorri den gizona atenditu du. Ergel aurpegia geratu zaizu, eta kamareroaren atentzioa zureganatu nahi duzu, urruntzen ari zaizulako. Atzera ere paso egingo duen susmoa duzu. Ikustezina zara berriro ere.

Film eta telesailetan protagonista roletan ez da adin batetik aurrerako andrazkorik egoten, bigarren mailako paperak betetzen dituzte agertzekotan.

Badirudi mundutik desagertu direla emakume horiek, ostenduta baleude legez. Ikustezin bihurtu dira.

Jakinekua da adin batera iritsita emakumeok ikusezin bihurtzen garela, edo ikusezin bihurtzen gaituztela. Menopausiaren bueltan gertatzen da, hortik aurrera ez ei gara desiragarri eta.

Gaiean gandu moduko bat ezartzen zaigu, lanbrotuta lagatzen gaituen geruza ukiezina, ikusezin bihurtzen gaituena. Superboterea omen da, baina infra-ahalmendun bilakatzen gaitu, ikustezintasunak ezdeustu egiten gaituelako.

Ikusgarriak gara, ordea. ●

# Euskara mailu bat da



ZIGOR ETXEBURUA URBIZU  
EUSKALTZALEA

**N**eronek esan nezake, baina Macronek esan zuen. Frantses nazioa zatitzeko tresnak omen dira frantsesa estatu hizkuntza bilakatu baino lehenagotik ere exagoan baziren hizkuntza horiek. Aitor-tu orde Frantziak hizkuntza horietako hiztunak azpiratu, uniformizatu eta asimilatu egin zituela, horiei leporatu die kontrakoa egin nahi izatea. Otsoa ardi narroz jantzia, Goebbelsen eran.

Hego Euskal Herrian ere antzera ari zaizkigu CCOO, UGT eta PSOE. Oztupoak jartzeaz gain berezko hizkuntzan hitz egin nahi eta hori lortzeko neurriak hartzen dituenari, haren aurka diskurtso manipulazaila eta erasotzailea darabilte; ez da neohizkuntzaren mailara iristen, baina apropiazioaren eta supremazismoaren osagarriak ditu.

Batetik, erabat antieuskalduna da. Euskarafobia idatzi behar nuen, baina zehatzagoa iruditzen zait euskaldunon aurkakoa dela adieraztea. Euskara eskakizunak langile batzuek baztertzeko arma direla adierazi dute, nahita ahanztuta hemen baztertu bakarrak bi hiz-

Nahita ahanzten dute 500dik gora lege, arau eta jarraibide dituztela gaztelania inposatzeko, eta aldi berean oldarraldi judizialik dagoenik ere ukatzen dute

kuntza ofizialak dakizkigun herritarrok garela. Gutxieneko demokratikoa beharko luke euskaraz elkar ulertzea; hizkuntz eskubideen berdintasuna lortzeko, eskaera zilegia eta neurrikoa da euskal herritarren zerbitzura aritu behar duenak, gutxienez, elkar ulertzeko adina euskara jakitea. Gainerakoa espainolaren nagusikeria linguistikoa eta euskaldunekiko bazterkeria da. Legez ezarria, gainera.

Bestalde, diskurtso klasista da, euskara gutxiengoaren hizkuntzatzat dutelako. Toleratu egiten dute, baina (beraiek erabakitzen dituzten) "behar errealetara" egokitu behar dela diote. Euskaraz bizi nahi dugunoi oztupoak jartzen dizkigute beren ezjakintasunari eta pribilegioei eusteko. Herritar xumeak behartuta daude espainola jakitera, baina VIP kastakoek, herrikideei ulertu gabe, haiengan agintzeko pribilegioa dute. Legez, inposatuta; ez go-mendio, ez erregu.

Eta, azkenik, diskurtso espainolista da. Beraientzat normala da euskaldunok legez behartuta egotea gaztelania ezagutzera, Espainiako Konstituzioak horrela ezartzen duelako. Beren itsukeria *rojiguldaren* erakusle da nahita ahanztea 500dik gora lege, arau eta jarraibide, eta estatuaren errepresio tresnak dituztela gaztelania inposatzeko, eta, batera, ukatzea oldarraldi judizialik dagoenik.

Horien guztien aurrean jarrai deza-gun euskaraz, eta euskaldunak ugartzen, bi nazio zapaltzaile horiek zatitu eta gurea askatu arte. ●

“

**Mundua eginez egiten  
dugu geure burua.**

*Joxe Azurmendi*

Bada esaldi bat  
pentsamendu bakoitzarentzat...

**Badakizu?**

Egin zaitez Jakinkide

Urtebetez doan.

Paperean edo digitalean  
etxean jasoko duzu.



**Jakin** dabilen  
pentsamendua





**Beti fresko!**

**DONOSTIAN EGINDAKO GARAGARDOA**



# Kapitalismo berdearen izenean, lurraren defendatzaileak kriminalizatuta

2023an ezagutu genuen Solway Investment Group multinazional suitzar-errusiarraren boterea noraino iristen den. Guatemalan duen Fenix meategiaren gehiegikeriak agerian uzten zituen ikerketa baten berri eman zigun Prensa Comunitariako kazetari batek, eta elkarrizketa hori zentsuratzen saiatu zen multinazionala: hura ezabatzeko eta 15.000 euro ordaintzeko exijitu zigun. ARGIAk kazetaritza independentea defendatzeko baliatu zuen eraso.

Orain, bertatik bertara ezagutu ditugu Solwayren estraktibismoak eragiten dituen giza eskubideen urraketak: ingurumena kutsatu, herri indigenen defentsa kriminalizatu, mehatxuak, kazetarien aurkako erasoak, eroskeria... Mendebaldeko jabetza duten multinazionalak Guatemalan eragindako mina, beldurra eta suntsiketa isildu nahi ditzutenez, guk ahotsa eman diegu antolatuta dauden komunitateei, lurraren defentsan dihardutenei.

 LEIRE ARTOLA ARIN  EDDY ZETA / PRENSA COMUNITARIA

**E**uskal Herrian gero eta ozenago altxatzen ari gara makroproiektuen ugaritzearen aurrean, horien kalteek arduratuta. Baina noraino egingo dugu ingurumenaren defentsa? Guatemalan ezagutu ditugun maia herriek ez dute zalantzarik: lurren defentsa bururaino eramaten ari dira, bizitza baitute jokoan. Mendebaldar gehienok ez bezala, herri indigenak naturarekin bat bizi dira, haien bizi sostengua dira, eta lurra eta urak berebiziko garrantzia dute beraien mundu ikuskeran.

Zer lotura dago klima aldaketaren eta giza eskubideen urraketaren artean? Mugarik Gabe GKEak hainbat txostenetan ondorioztatu du lotura estua dagoela, besteak beste, Latinoamerikan patroio bera errepikatzen delako herrialde as-

kotan: "Eredu estraktibista, kapitalista eta neoliberal sistematikoa da, logika kolonialek eta espolioak gidatuta dagoena". Beraz, argi du jatorrizko herrien eskubideak defendatuta lurra babesten ari garela. Instituzioei ardurak hartzeko eskatzen ari da gobernuz kanpoko erakundea. "Fokua jarri behar da klima larrialdian ardura gehien duten enpresa eta enpresariengan", ziurtatu dute. Mugarik Gaberi esker Guatemalara bidaiatu dugu, eta estraktibismoak itotako maia herritarren borrokak ezagutu ditugu.

Alta Verapaz departamentua da Guatemalan makroproiektu gehien metatzen dituena. Aldi berean, departamentu hori da herrialdeko muturreko pobrezia handiena duena -%83ko pobrezia-tasa du-. Errepide malkartsuetatik barrena

zeharkatu ditugun herrietan agerikoa da oinarritzko beharren gabezia, hala nola elektrizitatea ez baita toki guztietara iristen, eta jatekoa uztaren arabera ugariagoa edo eskasagoa da. Gainera, hainbat komunitate bakartuta bizi dira, eta ezinezkoa izan zaigu batzuetara iristea: baitetik, euriteen ondorioz errepideak itxita daudelako; eta bestetik, errepide batzuk enpresa hidroeletrikoen jabetzakoak direlako, eta haien baimena behar da igarotzeko. Esan gabe doa: ez dute nahi kazetaririk topatu euren bideetan.

Departamentuko Coban hiriburutik gertu kokatuta daude zentral hidroelektriko horietako bi: Renace eta Oxec, hurrenez hurren. Bernardo Caal (Santa Maria Cahabon, 1972) maia q'eqchi' herriko lider indigenak azpimarratu digu



“kapitalismo hiltzaileak” Alta Verapaz-en interes handia duela, biodibertsitate emankorra dagoelako, besteren artean. Ondotxo ezagutzen ditu multinazionalen praktikak, izan ere, 2018an, probarik aurkeztu gabe, zazpi urteko kartzela zigorra ezarri zioten, makroproiektu horien aurka borrokatzeagatik. Lapurreta eta legez kanpoko atxikitzea leporatu zizkioten, baina Amnesty Internationalek “kontzientzia preso” gisa aitortu du. Lau urte pasa ditu Cobaneko kartzelan, eta jarrera ona dela-eta ateratzen utzi zioten. Espetxearen kanpoaldetik kontatu digunez, kartzelaldia bizirauten lagundu zioten idazteak, borrokan eta aldarrikapenean jarraitzeak, eta herri-tarren 50.000 babes-gutun jasotzeak ere bai. Espetxeko atetik 300 metrora pasatzen den Cahabon ibaia seinalatu-ta, gogoratzen du ibaia entzuten zuela barrutik, eta haren emaria defendatzen jarraitzeko indarra ematen ziola horrek.

Caalek “ekoizidua” leporatzen die “energia berdea” ekoizten duten enpre-sen jabeei eta haren konplize diren go-bernuei. Natura izaki gisa deskribatzen du: “Cahabon ibaia torturatu, masakratu eta hiltzen dute hidroelektrikiek. Nora doa sakeatzen duten aberastasun guztia?”, salatu du, eta gogorarazi bertatik eskuratutako energia ez dela komunita-teentzat, baizik eta oro har meategi eta beste makroproiektuetara bideratzen dutela. Zentral horien dimentsioa iru-dikatzeko, nabarmentzekoa da Renace eta Oxec hidroelektrikien artean sortzen dutela estatuak sortzen duen energia baino gehiago. Caalek ohartarazi du horretarako ibaia lehortzen dutela, izan ere, zentralak funtziona dezan, ibilgua desbideratzen dute 8-10 metroko sa-konerako kanal artifizial batzuetara. Fi-nean, ura eta ibaia pribatizatzen dute, etekin ekonomikoa eskuratzeko.

Ekintzaileak ez du ahoan bilorik, eta errudunak seinalatu behar direla dio: Florentino Pérez Espainiako enpresa-ri eta Real Madrileko presidentea “krimi-nal” gisa jokatzeko ari dela dio, bere ACS enpresa baita Renaceren jabea eta Oxecen parte. Azken horren jabea den Israelgo enpresa bat ere seinalatu du, gerra garaian Guatemalara iritsitakoa “proiektu milioidunak eskuratzera” eta “iruzurrak egitera”. Dena den, transna-zional horiei aurre egin ahal zaiela era-kutsi du Bernardo Caalek: “Zentralak eraikitzeke zazpi lizentzia zituen Flo-rentino Pérezeren enpresak, eta laugarren fasean zeudenean preso sartu ninduten.



“Cahabon ibaia torturatu,  
masakratu eta hiltzen  
dute hidroelektrikiek.  
Nora doa sakeatzen duten  
aberrastason guztia?”,  
**Bernardo Caal,**  
**maia q'eqchi' lider indigena**

Baina antolakuntza ugariren laguntzari eta borrokari esker, geldiarazi egin ziren gainerakoak”.

Cahabon Guatemalako ibairik gar-rantzitsuenetakoa da, eta Caalek argi du haren defentsan segituko duela: “Suge bat bezala doa Cahabon, sigi-sa-ga, hainbat herritako errekekin batzen.

Ibai ugariren elkarketa da, kilometro askoren ostean Izabal lakuan ura isur-tzen amaitzen duena”. Lider indigenak antolakuntzaren bidez presioa egitearen fruituetan sinesten jarraitzen du, nahiz eta horretarako arriskuak hartu behar diren. Espetxeak ez du isilarazi; aitzitik, lortu du bere kasuak nazioartean sona eta babesa izatea.

### **Zentral hidroelektrikoetatik, meatzaritza zentraletara**

Cahabonen sigi-saga herrialdearen ekial-derantz doa, Karibe itsasoaren berota-sunerantz. Zentral ugariren oztopoak gaindituta, Cahabon Polochic ibaiarekin elkartzten da Izabal departamentuaren sarreran, eta emaria Izabal lakuan isur-tzen du, Guatemalako lakurik handie-nean. 45 kilometro luze eta hogeji kilo-metro zabal dituen lakuko urak azken hamarkadan oso nahasita daude, eta makroproiektu estraktibisten eraginek



zikinduta. Lakuko arrantzatik bizirauten duten komunitateek azaldu digutenez, Izabal kutsatzen dute Solwayren Fenix meategiak eta NaturAceites SA enpresaren palma plantazioak, besteak beste.

Turistentzat idilikoa den paisaia inguratzen du Izabal: mendikate berde garaiak, natura basa, animalia libre, txoriak arraien harrapaketa. Lakua hain da handia, kosta egiten dela lurretik beste muturra ikustea ere. Baina badago lakuaren edozein puntatik lehen begirada hutsean ikusteko moduko zerbait: mendi zati bat biluzik, berde kolorea galdu eta marroi-laranjaz tindatua. “Jada ez dago lehenagoko mendixka, arrautza-oskola besterik ez da; goringorik eta zuringorik gabeko arrautza bat bezalako”, deskribatu du arrantzale batek. Eta mendixka biluzi horren azpian, ur-ertzean, Pronico idatzita duen tximinia eta eraikuntza erraldoiak daude, Solway Investment Group enpresa suitzar-errusiarrak nikela prozesatzeko darabilen zentrala, alegia.

Pronico, CGN eta Mayaniquel dira nikela ateratzen ari direnak, eta saiatu izan dira azaltzen zerikusirik ez duten entitateak bezala, bati edo besteari jarritako zigorrek eraginik izan ez dezaten. Baina, funtsean, elkarrekin jarduten dute, eta Solwayri lotuta daude hirurak. Paolina Albanik 2023ko elkarrizketan esan zigan

---

“Pertsekuzioa eta seinalamendua ditut, baina ez naiz El Estorretik mugitu. Ni joaten banaiz, nork egingo du kazetaritza?”,  
**Juan Bautista Xol,**  
**Prensa Comunitaria**

bezala, “organizazio kriminal gisa jokatzen dute”, burua kenduta ere, beste bat etorriko da eta nikela erauzten jarraituko du, “errentagarria delako”. Legea ez betetzeagatik ezarri dizkieten zigorren aurrean beti ukatu dute egotzitakoa, eta nabarmentzen dute “enpresa jasangarriak” direla, gobernuarekin eta guatemalarekin elkarlanean dihardutela, eta 1.500 lanpostu inguru sortzen dituztela.

#### **Nork kutsatu du Guatemalako lakurik handiena?**

ARGIA zentsuratzen saiatu zen multinazional horren ohiko jarduna da haren aurkako ahots guztiak erreprimitzea, bertatik ikusi dugunez. El Estor herri

arrantzalean kokatuta dago meategia; 80.000 biztanle inguru bizi dira, eta %90 baino gehiago maia q’eqchi’ jatorrikoak dira. Meategiaren inguru guztia kontrolpean du enpresak, lurretik, airetik eta uretatik zaintza etengabea dauka. Hortaz, ez da erraza kazetariak hara iristea. Juan Bautista Xol (El Estor, 1994) Prensa Comunitariako kazetariarekin egin dugu El Estorrerainoko bidea. Meategiaren aurkako borroka hasieratik bizi eta kontatu du, eta kasuaz informatzeagatik pertsekuzioa jasaten ari da. “Errepide alboan ikusten dituzuen komunitateak dira lehen mendian bizi zirenak, baina nikela erauzteko handik desplazatu zituzten”. Bautistak azaldu digu enpresek askotan dirua erabiltzen dutela komunitateak desplazatzeko, eta bestetan, indarkeria edo intimidazioa. Bidean aurrerago, itxitura handi batek babestuta, kanpotik etorritako enpresako langileen bizitokia erakutsi digu, “kolonia” derizotena.

Zenbat eta gehiago gerturatu nikela prozesatzen duten plantara, orduan eta okerragoa da errepidea: “Haien kamioien joan-etorriek eragin dituzte zulo hauek”, zehaztu du El Estorreko kazetariak, eta tximinia seinalatuta zera gehitu: “Nikela prozesatzen ari zirenean tximiniako keak hodei gorri bat sortzen zuen egunero”.

## Kazetaritza ez da delitua

Interes publikokoak diren –edo izan beharko luketen– gaien buruz informatzeko oztopoak daudela frogatu dute giza eskubideen eta adierazpen askatasunaren defentsan aritzen diren Ameriketako hainbat erakundek, azterlan batean, zazpi herrialde hauetan zentratuta: Mexiko, El Salvador, Guatemala, Argentina, Brasil, Kolonbia eta Nikaragua. Azterlanean hartu du parte Guatemalako Prensa Comunitariak, eta azaroaren 30ean kazetarien eguna izan denez herrialdean, hori aldarrikatzeko probestu dute.

Gobernuek hainbat taktika baliatzen dituzte kazetariak isilarazteko, txostenean identifikatuta geratu denez. Erabiliena, mundu mailan ere aski usatua, kazetaritza desprestigiatzeko mezu desitxuratuak sare sozialetan hedatzean datza. Ofizioa bera baino, kazetari norbakoak ipintzen dira jo puntuan, eta horiek iraintzen eta seinalatzen dituzte sare sozialetan; askotan, Guatemalan eta El Salvadorren frogatu den gisara, gobernuek berak sortu dituzten kontu faltsuak presioak egiteko. Seinalamendu horietako asko heriotza-mehatxuak izan dira, eta horregatik, zenbait komunikabide edota kazetari ezkutatu egin izan dira.

Zenbait kasutan, epaitegietara iritsi eta auzitan jarri izan da adierazpen askatasuna. Edonola ere, epaiketara iriste hutsak suposa dezakeen diru-kantitatea hain da handia, horixe dela kazetariak isilarazteko modu esanguratsuenetako bat.

Harago joan eta kontrol soziala ere baliatu dute aipaturiko estatuek. Espioitza-programen bidez, esaterako, El Salvadorreko gobernuek 35 kazetariren mugikorrek zituen atzemanak 2020an.

Prensa Comunitaria bezalako hedabide independenteen lana funtsezkoa dela berretsi dugu Guatemalan, eta ARGIA ere jarraitzen dugu defendatzen kazetaritza ez dela delitua, ezta kriminalizatzeko arrazoia ere.



Une honetan zentral hori ez dago martxan, besteak beste, 2022ko azaroan AEBetako Altxor Publikoko Departamentuak kontu korranteak izoztu zizkiolako, salatutako jarduerak tarteko. Halere, zigor hori altxatu die 2024an, eta Solwayk iragarri du berriro martxan jartzeko lanean ari direla. Orain ere lanean ari dira, zenbait mineral dituzten “lur-arraroak” deritzotenak ateratzen, baina herrian duen eragina ezin da alderatu tximiniak martxan dauden unekoarekin. Herritarren amesgaiztoa da hori, eta ziurgabetasunez bizi dute berriro ere martxan jartzeko unea. Solwayk ematen duen informazioa oso opakoa da, eta herritarrek ez dute haren asmoen berri. Horrela, inpunitatez jardutea ere errazagoa zaio.

Ur-ertzean pila handiak ikusten dira, meategiak sortutako hondakinenak. Enpresaren esanetan, tratatu egiten dituzte kutsakorrak izan ez daitezten, baina arrantzale ugari ziurtatu digute ez dela horrela: “Ez dute betetzen ingurumen-eraginari buruzko txostena. Mendixka lehortu dute, eta ura kutsatzen dute. Arrainak gutxitu egin dira. Lehen, amua bota eta arrain bat ateratzen genuen, orain ez”.

Solwayri buruzko aurreko artikuluetan azaldu izan dugunez, 2017an lehertu zen auzia, lakuan orban gorrixka bat agertu zenean, eta arrainak hilda urazaleratu. Orduan, Arrantzale Gremioa sortu eta protestak gogortu zituzten. Enpresak ziurtatu zuen alga batzuen ondorioa izan zela kutsadura, eta herritarrei egotzi zien errua. Dena den, Mining Secrets nazioarteko kazetaritza iker-

keta handiaren arabera, enpresak kutsadura ezkutatu zuen, eta era guztietako praktikak erabili zituen gertatutakoa isilarazteko: mehatxuak, intimidazioa, eroskeria... Are, protestetan Carlos Maaz arrantzalea tiroz hil zuen Poliziak.

### Arrantzaleak antolatuta meategiaren aurka

Egoera erabat gaiztotu zen, eta kriminalizazio eta errepresio bortitzak jasan dituzte ordutik. Halaxe adierazi digute Arrantzaleen Gremioko bilkuran, Prensa Comunitariak gonbidatuta elkartu diren hamar bat emakume eta hamabost bat gizonek, eta kazetariok eskatu digute euren errealitatearen berri emateko: “Zuek etortzean enpresa eta gobernua gogaitu egiten dira, baina ez bada kontaktzen dena estalita geratzen da”. Orain arte “abandonatuta” sentitu dira Prensa Comunitaria ez diren beste hedabideen aldetik. Enpresaren boterea denengaino iristen dela kritikatu dute, eta erosita dituela hedabideak, indar armatuak, gobernua, alkatea, epaileak... baita herri indigenen ordezkariak ere.

“Momentu kritikoa batean gaude, tentsioa handia da”. Suminetik eta haserretik hitz egiten dute Arrantzaleen Gremioko kideek, q’eqchi’ hizkuntza eta espainola tartekatuta. Eta ez da gutxiagorako. Herri indigenen eskubideen urraketak etengabeak dira, eta boterekeria erabilia, bel-durrez, antsietatez, mesfidantzaz eta babesgabetasunez bizitzera kondemnatu dituzte. Antolakuntza eta elkartasuna dira aurrera egiten laguntzen

dietenak, baina aitortu digute baliabide faltagatik kostatzen egiten zaiela sarea jositakoa mantentzea.

Pasa den urriaren 29an El Estorren beste kide bat hil zutela gogorazi dute, Felipe Xo Quib arrantzalea. Meatzaritza enpresako langile bati egotzi diote hilketak Arrantzaleen Gremiotik. Bi arrantzaleen alargunak bilkuran daude, haurrak magalean. “Emakume hauei nork emango die kalte-ordaina? Haurrak nola aterako dituzte aurrera?”. “Justizia” galdegin dute arrantzaleek.

### Kontsultarako eskubidea, urratuta

Bi eskaera nagusi dituzte Arrantzaleen Gremioko kideek: giza eskubide urratetako eta Solwayren jarduna ikertzea, eta kontsultarako legezko eskubidea behar bezala betearaztea. “Asmo oneko” kontsultarako eskubidea da maia herrien aldarrikapen nagusietako bat. Horren arabera, lurraldean makro-proiektu bat ezartzeko baimena eman aurretik, estatuak jatorrizko herriek kontsulta egin behar die, aurretikoa, askea eta informatua izan behar dena. Guatemalan bi tresna dituzte hori bermatzeko, gobernua onartu dituenak: Nazioarteko Lan Erakundearen 169. hitzarmena, herri indigenei buruzkoa, 1996ko Bake Akordioetan sinatua; eta NBEn Herri Indigenen Eskubideen Adierazpena, 2007an gobernua onetsitakoa.

Arrantzaleen Gremiotik ziurtatzen dute “asmo oneko kontsulta” eginez gero, emaitza onartuko luketela. Baina ez da halakorik egon El Estorren eta Izabalgo beste komunitateetan. Fenix meategiari buruzko kontsulta egin, egin zuten 2021ean, baina ez zen legezkoa izan, 2022ko apirilean Guatemalako Konstituzio Gorteak ebatzi zuenez.

## Boterekeria erabilita, beldurrez, antsietatez, mesfidantzaz eta babesgabetasunez bizitzera kondenatu dituzte El Estorreko komunitateak

Epaiak zioen enpresak jarduna gelditu behar zuela berriro kontsulta egin arte, baina ez dago datarik horretarako. Cristobal Pop Arrantzaleen Gremioko presidentea preso egon zen lakuaren defentsa egiteagatik, eta hark salatu duenez, 2021ekoa “ez zen kontsulta izan”: “Komunitateek ez genuen meategia jartzeko baimenik eman, galdeketa ez zuten ez informaziorik ez askatasunik”. Izan ere, arrantzaleek ohartarazi digute kontsulta egin zuten unean setio-egoera zegoela El Estorren, eta enpresak eroskeria baliatu zuela aldeko botoak eskuratzeko.

Herrian bizi duten tentsioaren beste arrazoietakoa bat horixe da, herritarren artean gatazkak eta bandoak piztu dituela meategiak. Batzuek meategia defendatzeko manifestazioa ere egin izan dute. Antzinako Autoritateen –herri indigenen antolakunde eta autogobernua– liderrak dira bilkuran elkartutako arrantzaleak, eta haiek diotenez, herri indigenen ordezkariak biltzen dituen COCODE antolakundeak –alkate laguntzaileak–, meategiaren alde dagoenak, haiek baztertzen ditu. Ziurtatu dutenez, batzuek lehen pertsonan bizi izan dute alkate laguntzaile izan eta eroskeria jasatea, baina horri

uko eginda, orain, antzinako autoritate gisa, baztertuta sentitzen dira. 2021eko kontsultan, esaterako, COCODE jakin batzuk deitu zituzten galdeketa, eta antzinako autoritateak kanpo utzi zituzten. “Pena sentitzen dugu alkate laguntzaileek beren buroak saltzen dituztelako. Indigenok ez dugu pobrezia saldu behar”. Beste batzuk, alboko lakuari eta lur emankorrei begira, zera gehitu du: “Pobreak garelako esaten digute, baina begiratu hau guztia, dena aberastasuna da”.

### Kendutakoa berreskuratzeko borroka

Cristobal Pop eta Juan Bautista Gremioko arrantzaleek gidatuta, txalupan gurutzatu dugu Izabal lakua eta Chapin Abajo komunitatera heldu gara, ordubeteko bidaian, txalupako motor zaharrak ahalbidetzen duen abiaduran. Ur-ertzerako gerturatutakoan, usain arraro bat sumatu dugu. “NaturAceitesen zentralaren usaina da, palma olioarena”, ziurtatu digu Juan Bautista kazetariak. Komunitate hori bakartuta dago, ezin baitira bertatik irten, hainbat kide kriminalizatuta daudelako eta atxilotze aginduak dituztelako, palma plantazioen inposizioen aurka borrokatzeagatik. Halere, “kapitalismoaren eta neoliberalismoaren aurka” antolatuta dagoen komunitate bat topatu dugu, Pedro Cuc lider indigenaren azalpenek argi utzi digutenez. Besteak beste, palma enpresak kontsultarik egin gabe hartutako lurren erdia berreskuratu dute, euren kabuz palmondoak moztu eta uzta dibertsifikatuta. Urtebete bada horretan dabilzala, baina dolua pasatzen ari dira oraindik: indar polizialez inguratuta daude, eta haien errepresio latza jasan zuten, heldu zein haurren aurka erabili zuten indarkeria. Halere,



itxaropentsu daude, beraien lana betetzeko borrokan: “Nahi dugun bakarra da gure ondorengoei bizitzeko moduko lurra eta balioak eman”.

### **Komunitateen ahotsak zentsuratzeko saiakera**

Eguzkiaren irteerarekin hasten dira arrantzaleak lanean, eta hala dabilta oraingoan ere, aurreko gauean bota duten “atarraia” sareak biltzen. Zortea lagun, gizon horietako askoren emazteek hondartzan edo merkatuan salduko dute sarean harrapatutakoa, harik eta haurren zaintza lanek oztopatzen ez dieten arte.

Juan Bautista kazetariaren aita da, hain zuzen, txalupako gidari Bautista arrantzalea ere. Kazetaria haren laguntzaile gisa ibili zen bost urtez, legez kanpoko arrantzari buruz informatzen eta salatzen hasi zen garai hartan. Arrantzale artisauek dira, oro har, El Estorren, eta gurean hain ohikoa den arrantza industrialetik oso urrun daude. Bautista semeak ikusi zuen arrantzale tradizionalak ahotsa behar zutela, eta sare sozialetan aurkitu zuen aldarrikapenerako bidea. “Ni ez naiz kazetaritzan lizentziatua, baina kazetari komunitarioa naiz”, zehaztu du Prensa Comunitariako kolaboratzaileak.

Larrutik ordaindu du kazetari komunitarioa izatea, alegia, komunitateen bozgorailua izatea. 2017ko meategiaren aurkako protestei jarraipena egiteagatik hainbat kazetari komunitario enpresaren jo-puntuan jarri ziren, eta ihes egin behar izan zuten. Bautista oraindik ez zen kazetaria, baina “herri-tarrak informatzera behartuta” sentitu zuen bere burua, eta Prensa Comunitariarentzat lanean hasi zen El Estorretik. 2021ean errepresio bortitza egin zuen enpresak, errepidea blokeatu zuten lu-



rren defendatzaileen aurka, eta Bautistak horren berri eman zuen. Informatzearen erantzuna hauxe izan zen: bere etxera sartu ziren, atxikita izan zuten sei orduz, material elektronikoa kendu zioten... Jarraian 45 egunez ihes eginda egon zen, bere “bizitza babesteko”, eta itzulitakoan topatu zuen haren bi urteko haurraren ama eta orduko bikotekidea zena ere kazetariaren aurka jartzea lortu zutela, eroskeria baliatuta.

Orain bera bakarrik da kazetari komunitarioa herrian, eta kritikatu du autoritateek zailtasunak jartzen dizkiotela lan egiteko, eta informazioa ukatzen diotela. Dena den, komunitateen esker onak aurrera egiteko motibatzen du, eta argi du lan honetan “bururaino” jarraituko duela: “Nire kontrako pertsekuzioa eta seinalamendua ditut, beldurra izaten dut etxetik sartu-irtenak egiterakoan, baina ez naiz nire herritik mugitu. Zeren, ni joaten banaiz, nork

egingo du kazetaritza?”. Adierazpen askatasunaren defentsan, hainbat tailer ematen ari da inguruko komunitateetan, herritarrek ikas dezaten gertatutakoa independenteki kontatzen, kazetarien zain egon gabe.

Bautistaren gurasoek bere lana babesten dute, eta horrek ere laguntzen dio amore ez emateko: “Nire gurasoak lurraldearen erresistentziaren parte dira, eta eurei esker nago hemen. Ez dut utziko, agian lortuko dute noizbait ni zentsuratzera, baina nire kabuz ez diot utziko El Estorreko errealitatea kontatzeari”.

Proiektu estraktibisten gehiegikerien informazioa itsasoz bestaldera iristeko, haizea aurka izan ohi dugu. Kontrara, palma eta meatzaritza zentralatik ateratako olio eta nikelari ateak irekitzen dizkie Europak, eta Izabaleko Puerto Barrios herritik ateratzen diren itsasontzi kargatuei harrera egiten diete gure enpresa eta denda erraldoiek. ●

Berriatuan  
euskaraz deusogu!



**Berriatua**  
**Elizateko**  
**Udala**



**EUSKARAREN EGUNEKO**  
**EGITARAUA**

**Manex Astigarraga Bakarrizketa**  
Abenduaren 15ean, 19:00tan  
Bideogelan

**946 137 030**

**www.berriatua.org**





“ ”

*Arazoa ez da etxebizitzaren prezioa igotzea, etxebizitzak prezio bat izatea baizik*

Etxebizitza sindikatuak

LEIRE IBAR PELLO MAUDO / ARGIA CC BY-SA

Abenduaren 14an etxebizitzaren negoziaren aurkako manifestazioa egingo dute Bilbon, etxebizitza sindikatu nagusiek deituta. “Doako eta kalitatezko etxebizitzaren alde eta politikarien eta instituzioen fartsaren aurka” mobilizatzeraz dei egin

dute. Karla Pisanok (Etxebizitza Sindikatu Sozialista) eta Ane Salvadorrek (Etxebizitza Sindikatuen Sarea) egungo koiunturaren inguruan aritu zaizkigu. Soldata erreala jaitzen ari den honetan, langileriaren pobretze orokortua gertatzen ari dela salatu dute.

**Euskal Herriko etxebizitzaren batzuk besteko alokairua ia 800 eurokoa da, soldataren erdia edo gehiago da hori askorentzat. Zer ondorio dakartza horrek?**

**Karla Pisano (Etxebizitza Sindikatu Sozialista):** Pobretze prozesu orokortua da ondorioa, langile klase osoa pobretzen ari dela ikusten ari gara. Nire ustez, garrantzitsua da kausa bera aztertzea; mugimendu espekulatibo zabala dagoelako etxebizitzaren merkatuari bideratuta. Horrek igo egiten ditu prezioak, eta etxebizitza bateko sarbiderako aukerak murriztu.

**Euskal Herriko alokairuen prezioa nabarmen igo da azken urteetan, soldatek ordea ez dute gorakada hori izan.**

**Ane Salvador (Etxebizitza Sindikatuen Sarea):** Langile klase osoaren pobretzearen kausa potoloenetako bat etxebizitza da. Duela urte batzuk, langile klase geruza bat honetaz nolabait libratzen zela ikusten genuen, baina gaur egun horren handia da arazoa, non orokorra bihurtu den. Guztiontzat da arazoa, baina lehenagotik okerrago zeudenentzat tragedia bihurtu da. Kate horren azken katebegia da langileria prekarizatuena, etxebizitzarako sarbiderik ez duena, kalean bizi dena eta hil egiten dena.

**Administrazio publikoek auzi honi erantzuteko zenbait neurri aplikatzen dituzte, horietako bat da alokairu soziala.**

**K. Pisano:** Etxebizitza Sindikatu Sozialistatik, ikusten dugu etxebizitza soziala ez dela inondik inora ere konponbidea, bi arrazoi nagusirengatik. Batetik, estatuaren menpeko kudeaketa izateak ere ez duelako bermatzen etxebizitzarako eskubide unibertsala. Ikusten da etxebizitza sozialak ez direla oasi bat, horietan ere gertatzen direla etxegabetzeak, eta batez ere abusuzko praktikak, inpunitate are handiagoarekin. Horren adierazle dira etxebizitza sindikatuetara egunero datozen kasuak.

Bestetik, etxebizitzaren gainean dagoen kezka soziala negozioa bera indartzeko erabiltzen ari direlako. Etxebizitza sozialen eskaintza handitzean, populazioa gero eta pobreagoa izango dela onartzen ari gara; eta eraikuntzako enpresei konpetentziak ematen zaizkie etxebizitza sozialak eraikitzeko, negozioa are eta gehiago handituta.



“ ”

**Arazoa ez da eskaintza falta, etxebizitzarako sarbide falta baizik**

Ane Salvador

**A. Salvador:** Gehitzeko, esan alokairu sozialentzako sarbidea izugarri zaila dela, baldintzak oso zorrotzak direla eta ez dela iristen geruza zabal batengana. Etxebizitza Sindikatuen Saretik ez dugu uste alokairu sozialeko etxebizitzak arazoaren azken konponbide direnik, baina bai alokairu sozialen handitzeak neurri batean herritar multzo baten baldintzak hobetu ditzakeela. Hau diogu jakinda instituzioak ez direla etxebizitzaren arazoaren konponbide, arazoaren parte baizik.

**Etxegabetzeak aipatu dituzue, kopuruak gora egiten jarraitzen du, zein alternatiba eskaini beharko lirake?**

**A. Salvador:** Pandemiatik hona eta etxebizitza lege berriarekin, etxegabetzeen etetea aplikatu dela saldu digute, baina ez da horrela. Jendea kale gorrian uzten ari dira, funts putreek, inbertsore handiek eta jabe handiek haien jabetza berres-

kuratu ahal izateko, etxe horiek hutsak mantentzeko edo pisu turistiko bihurtzeko. Eskatzen duguna etxegabetze guztien etetea da.

**K. Pisano:** Beste bi elementu seinaltatuko ditut. Lehenengoa, alternatibean promesa hori etxegabetzeak exekutatu ahal izateko erabiltzen ari dira. Hau da, alternatibatza hartzen da aterpetxe batean bi aste pasatzea, eta hori nahikoa berme legal da norbait bere etxetik botatzeko. Bestetik, ulertu behar dugu etxegabetze asko negozioa handitu ahal izateko egiten ari direla. Astrabuduan ikusi genuena oso adibide ona da, 7.000 eurorengatik etxe bat husten du enpresak, ondoren 150.000 eurotan edo dena delakoan saltzeko. Gure ustez, etxegabetze guztien suspentsioa aldarrikatu behar da; hor kokatu behar da arreta, eta ez hainbeste alternatibean aferan.

**Euskal Herrian 70.000 etxe huts baina gehiago daude, eta bitartean etxe berriak eraikitzen jarraitzen dute. Zer egin beharko litzateke etxe hutsekin?**

**A. Salvador:** Gure ustez arazoa ez da eskaintza falta, etxebizitzarako sarbide falta baizik. Etxebizitza eskuragarri ez bada, ez da existitzen ez delako, baizik eta etxeak errentagarriagoak direlako hutsik badaude edo pisu turistikoak badira. Gainera, etxebizitza berrien eraikun-



“ ”

*Etxebizitza sozialak ez dira oasia, horietan ere ematen dira etxegabetzeak eta abusuzko praktikak*

Karla Pisano

izango balitz bezala, eta ez da aipatzen turismoaren atzean nazioarteko kapitala eta industria turistikoa daudela.

**K. Pisano:** Turistifikazioa etxebizitzaren arazoaren kausetako bat da, baina ez da kausa bakarra, Euskal Herriko jabego egitura hori baino konplexuagoa baita. Bai hutsik dauden etxebizitzak, bai luxura edo turismora bideratzen direnak ere, negozioaren mesedetan daude.

**Espainiako etxebizitza legeak zenbaterainoko onura ekar dezakeela uste duzue?**

**K. Pisano:** Izugarritzko triunfalismoz atera dira seinalatzen etxebizitzaren lege honek prezioak jaitsiko dituela, etxegabetzeak geldituko dituela eta abar luze bat. Baina ez ditu etxegabetzeak gelditzen, egunero ditugunek horrela erakusten dute; eta bestetik, lege honek ez ditu prezioak jaisten. Prezioen igoerari muga bat jartzen die, oso baldintza determinatuetan eta batez ere jabe handiei dagokionez. Hau da, igotzen jarraitu dezatela, baina piska bat motelago. Ez du ez hanka ez buru.

**Aldarrikatzen dituzuen neurri urgenteen artean dago etxebizitzaren prezio orokorra jaitea. Zein pausu ematea proposatzen duzue hori gauzatzeko?**

**A. Salvador:** Arazoa da orain arte hartu diren neurri guztiak ustez etxebizitzaren eskubidea bermatzeko hartu direla, baina praktikan helburua etxegaberen errenta bermatzea izan dela. Proposatzen duguna da urgentziatzeko neurri hauek nora-bide horretan benetan aplikatzea, eta, noski, etxebizitzaren prezioaren jaitsiera orokor bar inposatzea. Nahiz eta jakin ez direla irtenbidea eta ez dutela konponduko etxebizitzaren arazoa.

**Etxebizitza eskubide unibertetsala**

**izateko zein baldintza bete beharko lirateke?**

**K. Pisano:** Hiru puntutan laburbildu genezake. Bat, etxebizitzaren eskubide unibertetsalaz hitz egiten dugunean zer esan nahi dugun argitzea. Uste dugu mundu guztiak eduki beharko lukeela bermea gutxieneko kalitatezko baldintzetan etxebizitza batean bizi ahal izateko, eta modu egonkor batean bizi ahal izateko aukera eta eskubidea. Eskubidea ez baita eskubidea aukerarik ez badago. Bestela ideal hutsala da.

Bi, eskubide hori erreala izan dadin beharrezkoa da bestelako ekonomia baten gestioa. Auzia ez da matematiketik ez dutela ematen, baizik eta dauden bitartekoak logika ekonomiko gutziz irrazional baten baitan erabiltzen direla. Irrazionala behar sozialen prespektibatik, gutziz arrazionala etekin ekonomikoen prespektibatik.

Eta hirugarren, printzipio argi horien baitan mugimendu zabal bat artikulatzea, prezioa egiteko eta aldaketa horiek eragiteko.

**Sindikatu askok deitu duzue manifestazioa.**

**A. Salvador:** Uste dugu garrantzitsua dela mobilizazio hau etxebizitzaren borroka aurrera eramaten dugun subjektu ezberdinen artean deitzea. Gure ustez, eman beharreko urratsa zen, klase ofentsiba baten aurrean gauden honetan oinarri edo puntu amankomun batzuk adostea eta puntu horietan batasuna bilatzea etsaiari aurre egiteko.

**K. Pisano:** Puntu horiek ahalik eta ezkerrenean jartzea ezinbestekoa izan da. Kasu honetan, fokua etxebizitzaren desmerkantilizazioan eta jabetza pribatuari egin ahal zaion kritikan jarri dugu.

**Zergatik da garrantzitsua mobilizatzea?**

**K. Pisano:** Aldaketa erradikalak nahi badira, mugimendu zabal eta erradikalak sortu behar dira. Ez gaitzabela kondenatu petatxuen inguruko eztabaidetara, eta goazen erroko eztabaidara. Goazen esatera erroko zein aldaketa behar diren aldaketa posible izateko eta has gaitetzen mugitzen erroko aldaketa horiek sorrazteko.

**A. Salvador:** Ezinbestekoa da etxebizitzaren desmerkantilizazioa azpimarratzea, arazoa ez delako etxebizitzaren prezioaren igoera, etxebizitzak prezio bat izatea baizik. ●

tza negozioaren zati oso garrantzitsua da, burbuila are eta gehiago elikatzea eta handitzea lortzen baita. Etxeak egonda zentzugabekeria hutsa da berri gehiago eraikitzea, kontua liztateke hutsik eta abandonatuta dauden etxe horiek interbenitzea eta behar dutenei ematea.

**K. Pisano:** Anek esan bezala, arazoa ez da eskaintza falta, sarbidea baizik. Etxe hutsen inguruan esango nuke, badagoe-la printzipio bat, behinola alderdi sozialdemokrata erradikalen baitan egon izan dena eta 1980ko hamarkadan aplikatu zena. Hau da, etxebizitza arazo bat dagoen bitartean, jendea kalean dagoen bitartean eta etxe hutsak dauden bitartean, okupazioaren despenalizazioa minimo demokratiko moduan onartzea. Gaur inork ez du ordezkatzen hau, eta minimo demokratiko bezala ulertu beharko genuke.

**Etxe berri ugari eraikitzen ari da, gehienbat Gipuzkoako eta Lapurdiko kostaldean. Erregulatzeko neurririk hartu beharko litzatekeela uste duzue?**

**A. Salvador:** Turistifikazioa da Euskal Herrian dagoen gaitzik handienetako bat, argi eta garbi. Auzi horrek biztanleriaren desplazamentua eta ordezkapena dakartzatza, eta tendentzia hori Euskal Herri osoa zabaltzen ari da. Askotan hitz egiten dugu turismoari buruz zerbait abstraktua

## AITZIBER IBARBIA

# “Eskola partikularren eskaera handia zerbaitek huts egiten duen sintoma da”



Ongi ezagutzen ditu eskola partikularretara doazen ikasleak Aitziber Ibarbiak. 25 urte inguru daramatza matematika, fisika eta kimikako partikularrak ematen, batez ere Batxilerrekoei. Irakasle on eta txarrez, ikasgelan sortzen diren erritmo ezberdinez, azterketak zuzentzeko moduez, ikasle erosoez, ratioez, ikastetxe publiko eta itunpekoen arteko aldeaz, gurasoen rolaz, dagoen lehiatz... luze eta zabal mintzatu da. Eta garbi du: “Ez da nahikoa eskola-orduetan egiten denarekin”.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

**“Educación en la Sombra en España” azterketaren arabera, eskola partikularretan ikasle gehien dituen Espainiako Estatuko erkidegoa EAE da.** Ziurrenik, seme-alabak eskola partikularretara bidaltzeko aukera ekonomiko handiagoa dugu hemen, bizi-maila altuxeagoa, beste erkidego batzuekin alderatuta. Iruditzen zait beste lurralde eta familia batzuek, baliabideak izanez gero, bidaliko lituzketela seme-alabak. Beste ikerketa batek dio estatuan EAE dela eskola porrot txikiena duen erkidegoa; agian biak lotuta doaz, akademiatar joateko aukera handiagoa izateak eta ikasleei laguntza gehigarri hori eskaintzeak zerikusia izan dezake.

### **Normala al da hainbeste ikasle joatea eskola partikularretara?**

Ulertu behar dugu zergatik datozen hainbeste ikasle eskola partikularretara: batzuk datoz ezin dutelako irakaslearen erritmoa jarraitu; beste batzuek eskolaz kanpoko jardun mordoa dute eta etxean

lan egiteko nahikoa denbora ez dutenez, eskola partikularretara datoz azkarrago eta eraginkorrago egiteko; badira kasuak zeintzuetan euskaraz ez dakiten gurasoek ezin dituzten seme-alabak eskolako lanetan lagundu; eta guraso ugari dago segituan larritzen direnak, seme-alabak sufritzen ikusten dituztela eta karga kentzeko asmoz bidaltzen dituztenak eskola partikularretara. Eta nik ditudan ikasle gehienak daude unibertsitatean sartzeko batez besteko altua eskatzen dietelako eta nota hori eskuratu nahi dutelako, baina asko oso ikasle onak dira, ikasle exijenteak, berez ez dutenak eskola partikularrik behar.

Eta zure galderari zuzenean erantzunez, ez da normala hainbesteko eskaera izatea eskola partikularrek. Batetik, gurasoek normalizatu egin dituzte, seme-alabei erraztasun bat jartzeko, baina ikasle horietako askok ez dituzte behar. Bestetik, egia da errefortzua behar dutenak ere badirela, eta zerbaitek huts egiten duen sintoma da hori.

### **Eta zerk egiten du huts? Irakasleek, curriculumak, ratioek, denbora faltak, gurasoek?**

Nik ematen ditudan ikasgaietan zentratuta, batzuei asko kostatzen zaie matematikaren logika harrapatzea, denbora gehiago behar dute eta galdu egiten dira. Irakasle batek 25 ikasle baldin baditu gelan (kontzertatu batzuetan 35-40 ikasleko gelak ere badira, pentsa), eta nagusiki bi erritmo baldin badaude, ikasgaia erraz jarraitzen dutenak eta ezin dutenak jarraitu, zeinek markatu behar du erritmoa? Zeren eskola planteatuta dagoen moduan ez dira bi talde egiten ikasgela barruan, ez dira bi erritmo ezartzen.

### **Eta bi horietako zeinek markatzen du erritmoa?**

Normalean irakasleak berak erritmo bat du buruan ikasturte hasieran, eta ikasturtero erritmo hori eramaten du, egokitzen zaizkion ikasleak egokitzen zaizkionla ere. Ikasle batzuentzat erritmo lasaia



izango da eta beste batzuentzat azkarregia. Ikastetxe kontzertatuetan, adibidez, erritmoa, metodoa, oso markatuta dute.

### **Hara, uste nuen curriculumak lotuago zuela eskola publikoa, eta ikastetxe kontzertatu batzuek malguago jokatzen zutela...**

Normalean, ikastetxe kontzertatura sartzen den irakasleak eskola horretan dagoen metodoa, proiektua, jarraitzen du. Irakasle oso ona bazara, metodo horri probetxua aterako diozu; eta oso abila ez bazara, proiektu horrek markatzen dituen pautak bere horretan segituko dituzu, aurrean dituzun ikasleez asko arduratu gabe, eta pentsatuko duzu, "behar duen ikasle horri jarriko diote gero laguntza eskolaz kanpo". Eskola publikoan aldiz, ez dute zertan metodologia edo proiektu bat jarraitu; ikastetxera sartzen den irakasle berriak erabaki dezake eskola horretan aurrez prestatuta dagoen materiala (baldin badago) segitzea, edo erabaki dezake bestelako molde bat segitzea, materiala desgokituzat, zaharkituzat... jotzen badu. Kontuak kontu, publiko nahiz kontzertatu, irakasleak berak duen erakusteko metodo eta erritmoetara moldatu behar dugu eskola partikularretan, aldiro.

### **Arazoa da izugarri lehiakorrek garela, eta gainera, erritmo eta maila ezberdineko ikasleak erritmo eta talde berean ditugula**



### **Ikastetxe publiko eta itunpekoek ari garela, ezberdina al da batetik eta bestetik datozkizun ikasleen demanda eta exijentzia maila?**

Eskola publikoko ikasle gehiago etortzen zaizkit, eta kurioso da, ratioak txikiagoak izan ohi direlako. Publikoan, ikasleak lan gehiago egin behar izaten du bere kontura, Batxilerrean behintzat autonomia handiagoa eskatzen zaie, askeago uzten dituzte eta informazio gehiago eskuratu behar dute beren kabuz; itunpekoetan aldiz, apunteak, ariketak eta pautak markatuago daude, eta galtzeko arrisku gutxi izaten dute. Curriculum beraren bueltan, mamituago jaso ohi dituzte gauzak.

**"Behar duen ikasle horri jarriko diote gero laguntza eskolaz kanpo".**

### **Irakaskuntza azpikontratatzan ari gara?**

Gizarteak horrela funtzionatzen du: are, egin dezakegun hori ere azpikontratatzan dugu, errazago eta erosoago egiteko, denbora libre gehiago izateko, eta ahalegin txikiagoak gainera frustrazio txikiagoa dakarrelako. Zergatik diodan hori? Eskola partikularrak ematen hasi nintzenean, ez zegoen Internetik, eta ikaslea irakaslearen azalpenetan galtzen bazen, zentzua zuen eskola partikularrak behar izatea. Gaur egun, sarean bideo-tutorial mordo dago, irakasleak azaldu-tako hori berriz ere primeran azaltzen dutenak, edo irakasleak berak azalpenak igotzen ditu gelan erabiltzen duten plataformara, behar duenak berriz jaso dezan azalpena, baina ikasleak eskola partikularrera etortzen dira eta onartzen didate ez direla jarri bideo hori ikusten; autonomia eta ahalegin hori falta zaie, erosoagoa da eskola partikularretan egitea, eta Batxilergoko ikasleez ari naiz.

### **Eskola partikularretan erosoagoa eta errazagoa da beraz.**

Hezkuntzan nabarmen huts egiten duena ratioak dira, nik zortzi ikasleko taldeak ditut eta primeran iristen naiz denengana, badakit non eta zergatik egiten duen huts ikasle batek, zein sentsibilitate duen eta nola zuzendu behar naizen berarengana. Eta hain justu, irakasle on bat izatea ez da bakarrik materia ongi ematen jakitea, baizik eta nori ematen diozun oso kontuan izatea, ikasle horren atzean faktore pila bat daudelako, eta irakasle on batek horiek guztiak harri-patu beharko lituzke. Izan kontuan nerabeez ari garela eta buru nahasmen kasu asko dagoela; ratioek ez badiote uzten irakasleari horretan guztian zentratzen, arazoa hor ere badago.

### **Ratioak aipatu dituzu. Huts egiten duten faktoreen artean zerrendatu dut galderan.**

Eta ez da faktore bakarra. Curriculuma ere aipatu duzu zerrendan, bada, curriculumetan begiratu beharko litzateke nork behar duen horrenbeste eta nork ez, eta horren arabera moldatu. Adibide bat: gaur egun, DBHko ikasleek Matematika derrigorrezko ikasgaia dute eta gehiago sakondu nahi dutenentzat Matematika Lantegia dago hautazko gisa. Baina derrigorrezko ikasgaiak maila hori izan behar du? Alderantziz egingo bagenu? Zergatik ez jarri Matematika Lantegia derrigorrezko, DBH 3 eta 4. mailan, batez ere mate-

## **Gurasoek eskola partikularrak normalizatu dituzte, seme-alabei erraztasun bat jartzeko, baina ikasle horietako askok ez dituzte behar**



matikaren kontzeptuak barneratzeko eta proiektuen bidez matematika apur bat lantzeko; eta gehiago nahi eta behar duenarentzat hautazkoa izatea maila handi-goko matematika? Zertarako exijitu halako matematika maila, gero zientzietatik joko ez duen ikasleari?

### **Segi dezagun huts egiten duten faktoreen zerrendarekin. Zein da gurasoen rola? Ez al liekete seme-alabei eurek lagundu behar ikasketekin?**

Gurasook ez ditugu gure seme-alabak sufritzen ikusi nahi, eta bizilagunari entzun badiogu seme-alaba akademian duenetik askoz lasaiago dabilela eta etxean liskarrrak gutxitu direla, probatu egingo dugu, eta funtzionatzen duenez, hurrengo urteetan ere akademian segituko du seme-alabak. Funtzionatuko ez du ba, arreta pertsonalizatua bermatuta baldin badugu partikularretan.

Guraso batek etxean egin behar al duen lan hori? Nire iritzia da ezetz, gurasoen rola ez dela seme-alabei materia erakustea, baina bai haiengan interesa piztea eta ikasten duenaren beharra eta garrantzia (edo ez) helaraztea. Hori bai, seme-alabei emandako mezua ez dadila izan “akademiarra joan eta etxerako lanak gaintetik kendu”, ohitu daitezela etxean lanak egiten eta errepikatzen, zeren matematikako kontzeptuak behar bezala barneratzeko, ez da nahikoa eskola-orduetan egiten denarekin.

### **Eztabaida sortzen duen gaia jarri berri duzu mahai-gainean: “Ez da nahikoa eskola-orduetan egiten denarekin”.**

Nik daramatzadan gaietan, matematika, fisika eta kimikan, garbi daukat eskolako lanketarekin etxean jarraitzea beharrezkoa dela, mekanika on bat hartzeko. Buru batzuek di-da egingo dituzte lan horiek eta ez die lan-kargarik suposatuko, eta

beste batzuentzat lan-karga izugarria izango da. Baina liburu bat irakurri eta horri buruzko lan bat egitea ere izugarriko lan-karga izango da batzuentzat, eta eskolan ezin dizkiozu hilabete oso bateko Euskara orduak eskaini liburu bat irakurtzeari, etxean egin beharreko zerba it da.

### **Orduan, arazoa da ikasgai ezberdinetatik etxerako lan asko pilatzen denean?**

Horixe bera. Irakasleen artean ez badute hitz egiten, arazo hori sortzen da, eta egun berean hiruzpalau lan pilatu ahal zaizkie ikasleei. Hori esanda, ikasleek dramatizatze joera handia dute, etxean are gehiago, eta gurasook badakigu edo jakin beharko genuke zenbateraino sine-tsi behar diegun gure seme-alabei.

Gainera, huts egiten duten faktoreez galdetu didazu eta aipatu duzun zerrendan bat falta zaizu: ikasleak. Ikasleek erosotasuna bilatzen dutela iruditzen zait, “gaur, orain eta ahalik eta errazen” gizartea sortu dugulako. Produktiora erabat bideratutako gure gizartean, non gure seme-alabek eskolaz kanpoko jardueraz josita dituzten arratsaldeak, ez daude prest lehen aipaturiko bideo-tutorialak ikusteko, azkarrago eta errazago egingo dutelako Aitziberrekin, eskola partikularrean. Erosotasun horretatik atera behar ditugu gazteak. Etxean zergatik ez duten ikasten? Akademian egingo dutelako, hori garbi daukat.

### **Itxiko dugu huts egiten duten faktoreen zerrenda?**

Irakasleekin itxiko dugu. Irakasle ona edo ez izatea faktore garrantzitsua da. Adibide bat jarriko dizut: badago DBHn irakasle bat, azalpen guztiak zoragarri ematen dituena, ikasleek primeran ulertzen diote, baina etxerako lan pila bat bidaltzen ditu, eta berak lana hartzen du etxerako lan horiek guztiak zuzendu eta banan-banan ikasle bakoitzari oharrak jartzeko. Exijentzia maila, ordea, oso altua du azterketetan, eta ikasgela batean beharbada lauzpabostek baino ez dute gaintutuko. Bada, horrek esan nahi du ez dela irakasle ona, emaitzak horiek baldin badira zerba it huts egiten ari dela konturatu behar duzu, azterketaren exigentzia maila edo zuzentzeko modua berrikusi behar duzula.

Beste adibide bat: matematikan, emaitza berera iritsi zaitezke bide ezberdin askotatik, eta badira irakasleak (Batxilerraz ari naiz) beren metodoarekin ez



“Arazoa ez da azterketa, nola zuzentzen den baizik, zenbateko garrantzia ematen zaion akats matematiko bati eta zenbateraino zigortzen duen hori irakasleak”.

bada ez dakitenak beste metodo batekin egiten, eta nik, errazagoa edo ulerterrazagoa delakoan ikasleei beste metodo batekin egiten azaldu badiet, irakaslea ez dago seguru ongi eginda dagoen ala ez, emaitza ongi egon arren. Bada, irakasle hori ez da irakasle ona.

Eta azkenik, irakasleak jakin behar du ardura handiko lana duela, gazte batzuen etorkizuna, autoestimua, etxeke giroa... dutela esku artean, eta askok ez du horren kontzientzia. Psikologia asko behar da irakasle izateko, eta elkarlanean jardun beharko luke bere ikasleen gurasoekin eta eskola partikularrak ematen dizkiegunekin.

### **Baduzu zuk halako harremanik? Bildu izan zara zureraz doazen gazteen irakasleekin?**

Bai, gurasoak irakaslearekin biltzera doazenean ni ere eraman izan naute, adibidez ikasle batek egindako azterketa ikusi eta zergatik ez duen gaitzitu ulertu ez dudanean. Eta irakasleen azalpenekin hobeto ulertu izan ditut beraien erabakiak, nik ez dakidalako, besteak beste, eskolan nolako jarrera duen irakasleak. Dena den, irakasleak dioena ere bere bertsioa da. Kontuak kontu, normalean oso ongi tratatu naute eta adostasunen bat lortu izan dugu, joan naizenetan beti izan delako benetan laguntza behar duen ikasle batengatik. Irakasleak, esaterako, curriculumaren esijentziak malguago jokatu eta esaten dit: “Ikasle honi ikusten badiot hobekuntza halako honetan, eta kontzeptu honetara eta honetara iristen bada, balekotzat emango diot”.

## **Curriculumetan begiratu beharko litzateke nork behar duen horrenbeste eta nork ez, eta horren arabera moldatu. Zertarako exijitu halako matematika maila, gero zientzietatik joko ez duen ikasleari?**



### **Eskolan ematen den horretatik –eta zurekin lantzen duten horretatik– azterketan galdetzen denera alde handia dago?**

Ez, klasean ematen dituzten ariketa antzekoak dira azterketetakoak. Klasean hasten dira ariketa sinpleekin, gero konplikatzeko joaten dira, eta azterketan bietatik aurki daitezke, ariketa sinpleagoak azterketa gaitzitzeko, eta ariketa konplikatuagoak nota altuagoa lortzeko. Arazoa ez da azterketa, nola zuzentzen den baizik, zenbateko garrantzia ematen zaion akats matematiko bati eta zenbateraino zigortzen duen hori irakasleak.

Aukera bat da ikaslearen arabera ezberdin zuzentzea, baina hori ere arazotuzko izaten da. Mutiko bat daukat, oso bizkorra, zeinari ariketa bat akats gisa zuzendu dion irakasleak, baina ariketa berdin eginda duen ikaskideari ontzat

eman dion. Azaldu diot irakasleak hori egin duela badakielako hobeto egin dezakeela eta adierazi nahi diolako hori kontuan hartzen badu asko mehoratu dezakeela etorkizunera begira, inoiz ez diola horregatik suspendituko; are gehiago, mutikoak nota ona ateratu eta ikaskideak aldiz ez du gaitzitu, baina berdin dio, bidegabekoa dela eta haserre dago, batez ere bere gurasoek ere bidegabekoa dela esaten dutelako. Arazoa da izugarri lehiakorrek gaitzitu, eta gainera, lehen nioenaren haritik, erritmo eta maila ezberdineko ikasleak erritmo eta talde berean ditugula batera.

### **Sarri sozioekonomikoki egoera zailenean daudenek dute errefortzurako eta eskola partikularretarako behar handiena.**

Eta etxe guztietan ez dute aukera hori. Normalean, astean bi ordu dituzte ikasleak. Bada, bi ahizpa izan nituen eta ordu batean ahizpetako bat etortzen zen eta bestean bestea, bien artean kuota bakarra ordaintzeko. Zaharrenak laguntza gehiago behar zuenez, gazteena ateratu zuten eta gurasoek eskatu zituzten saiatzeko alaba zaharrenak maila on bat lor zezan, gero hark lagunduko ziola txikiari etxean. Eta nahiko ongi funtzionatzen ari dira horrela, berrasmatzea ere egokitzen zaio hainbat familiari. Halakoetan, etxean dituzten dinamika eta baloreak antzematen dira: anai-arreba zaharrena txikiari laguntzen ez duela ikusten etxe askotan, haserretzen direla edo hori ez dagokiola arrazoituta, baina izan daiteke rol polit askoa elkar laguntzea etxean.

### **Diruaz ari garela, ezin utzi aipatu gabe ingelesak mugitzen duen negozio itzela, akademia eta eskola partikularretan.**

2-3 urteko umeak ingeleseko akademietara joaten dira, propagandak barnerratuaz digulako haurrak adin horretan ez badu belarria lantzen jarri, jai duela ingelesarekin. Honen guztiaren atzean dago, baita ere, titulua eskuratu nahia: guraso askok uste du, seme-alabak 15-16 urterako First titulua ez badu, oso atzeratuta geratuko dela. Pentsa, seme-alabak ingelesarekin zailtasunak izango ote dituen jakin aurretik ere hasten dira akademian; hain prebentiboak izan behar dugu? Hainbesteko garrantzia du titulua hori lortzeko? Zergatik ez ditugu berdin prestatzen euskarazko titulua lortzeko, jakinik C1 gaitasun maila eskuratu ezinik dabilela gazte asko? ●

# Zuri esker edukiak libre

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

**E**ntzun dut albiste bat kalean eta pentsatu dut “zer gertatu ote da?”. Sartu naiz hedabide baten webgunean, ikusi dut berria eta klik egin dut. Giltzarra-poa. Ordainuzko edukia. “Putza!”. Eta joko dut beste komunikabide batera, ea hor zorte handiagoa du-dan. Ez al zara sekula egoera honetan topatu, irakurle? ARGIAN ez, hori ziur, hedabide asko beren albiste eta edukiak ixten ari diren bitartean ARGIAk informazioa libre eskaintzeko hautu kontzientea egin baitu; euskaldun guztiei informazio eskubidea bermatzea. Hori aldarrikatzera dator negu honetako harpidetza kanpaina.

Dirua ez dadila izan inorentzat oztopo informazioa eskuratzeko edo ARGIA irakurtzeko. Premisa hori da. Alde horretatik ARGIAk duen baliorik handienetakoa da sortzen dituen eduki guztiak sarean libre izatea. Astekaria osorik dago eskura argia.eus atarian, baita albisteak, *Larrun* hilabetekaria, podcastak, multimedia kanala eta honen barruan dagoen euskarazko dokumental bilduma potoloa ere.

Bere edukiei giltzarra-poa jartzen dienak ondo

pentsatuta egiten duen bezalaxe, ARGIArena ere hautu kontziente eta politikoa da, Euskal Herri kritiko, konprometitu eta euskalduna helburu, ezkerreko ikuspuntutik desinformazioari aurre egiteko tresna modura ulertzen baitu informazioa libre izatea eta herritar guztiei informazioa bermatzea. Euskara hizkuntza gutxitu eta zapaldua den heinean, gainera, estrategikoa da euskarazko informazioa ahalik eta gehien zabaltzea, bidean dituztenak baino oztopo gehiago jarri gabe. Horretan ere laguntzen dute ARGIAk darabiltzan CC-BY-SA bezalako lizentzia libreek; argia.eus-en edukiak libre egoteaz gain, mugarik zabaltzeko aukera ematen baitute.


## ZURI ESKER

Durangoko Azokarekin hasi eta datozen asteetan egongo da martxan kanpaina eta mezua horixe da: sarean eduki guztiak libre, zuri esker. ARGIAko kide guztiei esker lortzen baita eduki hauek libre izatea. Eta oraindik ez bazara, zuk ere harpidedun egitea erabakitzen baduzu, euskaldun guztiei informazioa bermatzeko zure aletxoak jarriko duzu.

Egin ARGIAkoa. [www.argia.eus/eginargiakoa](http://www.argia.eus/eginargiakoa). ●







# Iruñeko atxilotze-aldi luzea



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

Iruñea, 1939. Urte hasieran, hiriko zezen-plaza kontzentrazio-esparru modura erabili zuten frankistek. 3.000 gerra presorentzako edukiera izan zuen ofizialki; Nafarroan une horretan frontetik ez zegoenez, gerra presotzat baino errepresaliatu politikotzat jo behar dira han giltzaperatutakoak. Eta zezen-plazakoa ez zen Nafarroako esparru bakarra izan. Carlos Hernández de Miguel kazetariak *Los campos de concentración de Franco* ikerlanean jaso zuenez, beste hiru eraikin erabili zituzten helburu berberarekin: La Merced komentua, Iruñean bertan; Iratxeko monasterioa, Lizarran; eta Tafallako Akademia militarra. Guztira, 8.000 presorentzako tokiak zegoen lau esparru horietan. Espainiako Estatuan horrelako ia 300 gune erabili zituzten eta 700.000-1.000.000 herritar sartu zituzten horietan. 1939aren amaieran esparru horiek guztiak pixkanaka ixten joan ziren.

Baina Iruñean halako espazioak frankismo osoan zehar erabili ziren, Nafarroako Oroimen Historikoaren Funtsak aurtengo maiatzean argitaratutako *Cartografía e historia de la cautividad bajo el franquismo: Iruñea-Pamplona (1936-1978)* txostenaren arabera.

Aipatutako La Merced komentuz gain, Eliza Katolikoari lotutako beste hainbat gune erabili zituzten: Eskolapioen, Salesiarren eta Jesusen Urtsularren eskolak, Seminario Zaharra... Horiez gain, Falangeak indarrez har-



ESPAINIAKO LIBURUTEGI NAZIONALA

Preso errepublikarrak Santanderreko zezen-plazan 1939an. Iruñeko zezen-plazak antzeko itxura izango zuen garai hartan, argazkirik ez dagoen arren.

tutako etxebizitza pribatuak erabili zituzten, baita hainbat instalazio publiko ere: Ospitale Militarra, Euskal Jai frontoia, San Joan futbol zelaia... eta, jakina, zezen-plaza.

1936ko Gerra amaituta eta, bereziki, 1945etik aurrera, atxilotze eta giltzaperatze praktika horiek behera egin zuten. Bigarren Mundu Gerrako potentzia faxisten porrotaren ondorioz, Frankismoak irudi errepresiboa leundu behar zuen. Baina, txostenak dienez, "1950, 1960 eta 1970eko hamarkadetan gatazka sozialek gora egin zuten", gune berriak erabili zituzten. "Mobilizazio sozialek, lan esparrukoek eta erregimenaren

aurkako agerraldi geroz eta ohikoagoek" eragiten zituzten atxilotetak. 1951n bertan, greba orokorrak atxiloteta andana eragin zuen, eta zezen-plazan 300 atxilotu sartu zituzten. Eta Frankismoaren azken urteetan egoerak okerrera egin zuen, gatazkek gora egin ahala. 1973an, adibidez, greba kopurua 1972an baino bost aldiz handiagoa izan zen.

Gaur egun, Ospitale Militar zaharra, esaterako, Nafarroako Museoaren egoitza da, eta zezen-plazan bestelako torturak egiten jarraitzen dute. Baina horrelako txostenak eta ikerlan berriak zabaldua, oroimen-gune ere bihurtzen dira herritarrentzat. ●



JOHNS HOPKINS UNIBERTSITATEA

## Idazketa alfabetiko zaharrena?

Egungo Siriako Tell Umm-el Marra aztarnategian idazkunak dituzten hainbat zilindro aurkitu dituzte Johns Hopkins Unibertsitateko ikerlariek. Adituen ustez buztinezko pieza hauetan idatzitako zeinuak alfabetikoak izan litezke. K.a. 2400 urtean datatu dituzte zilindroak eta orain arte uste zuten idazketa alfabetikoa 500 urte geroago asmatu zela

Egipton edo inguruetan. Idazketa modu zaharragoak (hieroglifikoa, kuneiformea...) ikasteko oso zailak ziren eta idazketa alfabetikoak ezagutza askoz jende gehiagorengana hurbiltzeko bidea zabaldu zuen. Hipotesia egiaztatuz gero, komunikazioaren teknologiaren mugarri hori askoz lehenago garatu zela baieztatuko litzateke. ●

# TOMATE HAZIEN BILDUMAGILEAK ETA BIOANIZTASUNAREN ZAINZA LOGIKAK



MARTA BARBA GASSÓ



Polanco herriko (Kantabria, Espainiako Estatu) 2024ko tomate txapelketa.

**B**ukatu da (bukutzen ari da) tomatearen sasoa eta unea aprobetxatu nahi nuke uda honetan izandako kezka eta amorruak orriotara ekartzeko.

Badira hiru hamarkada baino gehiago herri mugimenduen arlotik, agroekologiatik eta elikadura burujabetzatik bertako hazi eta barietateen inguruan lan mardula egin dela. Haziak elikaduraren lehen katebegia direla jakitun, hazien galerak dakartzan arazo ekologikoez jabetuta, eta mundu mailan horien inguruan gauzatu-tako pribatizazio eta merkantilizazio prozesuekin kezkatuta, hainbat eta hainbat ekimen gauzatu dira eta gauzatzen ditugu: transnacionalen aurrean autonomia bermatzeko, haziekin batera ezagutzak eta kulturak bizirik mantentzeko, eta bizitza zaintzeko eta bermatzeko. Horretarako, bertako barietateak ezagutu eta ezagutarazteko hamaika ekimen antolatuta dira, betiere aniztasunaren garrantzia eta tokian toki haziak ugaltzeko eta zaintzeko lanaren garrantzia azpimarratuta.

Baina neoliberalismoak badu aldarririk desitxuratzeko eta bereganatzeko gaitasuna, erresistentziarako izaera edo iraultzarako grina ezabatuta. Eta, horretarako, noski, gaur egungo dominazio-sistemak konplize ezinhobeak zaizkio.

Harira noa. Azken urteotan sentsazioa daukat figura sozial berri bat sortu dela, eta azkar ugaltzen ari dela gainera: tomateen bildumagileak edo kolekzionistak (gizonak, noski) eta, horiekin batera, to-

mateen lehiaketak. Egia da bertako barietateak ezagutarazteko eta baloratzeko aspaldi antolatu izan direla dastaketak eta sariketak. Horietan, gainera, maiz parte hartu dute ekoizle agroekologiko profesionalak, eta trukean, batzuetan, aitortza pixka bat ere jaso dute. Beraz, ez daukat horiek kolokan jartzeko inolako asmorik. Baina azken urteotan sentsazioa daukat lehiaketa horien logika aldatzen ari dela. Gero eta gehiagotan "afizionatuek" parte hartzen dute horietan (hau ez zait halaberrez kalterako iruditzen, badaezpada ere diot), gizonetzkoek gehienetan, eta, gainera, ez beti bertako barietateekin. Aurten, kasurako, Polanco herrian (Kantabria, Espainiako Estatu) antolatu den tomateen nazioarteko lehiaketa "Brandy Boy" barietateak irabazi du.

Zer-nolako ekarpen egiten diete horrelako lehiaketek bertako hazi eta barietateei edo landutako bioaniztasunari? Ehunka eta ehunka (edo milaka) tomate barietate gordetzen dituzten gizonetzko bildumagile horiek, zer helburu mota dute buruan? Horrelakoetan Gipuzkoako baratzezain emakumezko bat etortzen zait burura. Barazki mota asko ekoizten ditu, ekologikoki, azokan eta bestelakoetan saltzeko. Horietako batzuen landareak etxean egiten ditu, urtez urte haziak gordez. 15 bat tomate barietate izango ditu, beste horrenbeste gutxi gorabehera piperrera. Badu bakoitzarentzat izen bat, berak emana, berari barietate hori eman zionari erreferentzia egin ohi diona, eta

badaki nondik ekarri zuen bakoitza. Lan horrekin ez du bilatzen izen propiorik, osperik, aitortzarik. Ez du horrekin egotik puzten. Ordea, barietate horiei esker baratzea elikatu eta mantentzen du, lurra zaintzen ditu, elikagaiak sortzen ditu, eta etorkizuna bermatzen du.

Isilpeko lan hori historikoki emakumezkoek egin dute. Zenbait gizonetzko ere bai. Ez nuke nahiko, orain, ugalketa eta zaintzari lotutako genero estereotipoak berrindartzerik. Baina bai, ordea, azpimarratu gizontasunaren zainza logikak. Seme-alabei abizena ematean jazotzen den antzera, edo seme aizkolari edo futbolariekin norbere abizenari ospea emateko nahiarekin gertatu bezala, maiz, gizonetzkoak, haziak eta barietateak zaintzen hasten direnean, aitatasun eta aitortza logika berekin sartzen dira jokoan. Eta, noski, ingurukoak liluratuta geratzen dira gizonetzko horien gaitasunarekin eta horien arrautzen (barka, tomateen) tamainarekin. Horrelakoetan, lehendik beste askok kolektibotasunetik eta anonimotasunetik bertako hazien alde landutako eta bultzatutako logikak leherrarazten dituztela iruditzen zait. Beraz, logika neoliberal eta matxistek ez dezatela alde aurretik egindako lana zapuztu eta xurgatu. Hazien ugalketan, ekoizpenean eta defentsan dihardugunok badakigu borroka ego eta erakusleihatik kanpo jokatzeko dugula, eta bizitza (ab)izenetatik at zaindu eta sortzen dela. ●

## A ZE FAUNA!

# GONBIDATU GABEKO TURISTA



IÑAKI MEZQUITA ARANBURU  
ARANZADIKO KIDEA

**2**016an ikusi omen zuten lehen aldiz Herrialde Katalanetan. Bi urte geroago, 2018an alegia, Xanti Pagola eta Imanol Zabalegui entomologoek Gipuzkoan azaldu zela jakitera eman zuten. Eta euskaraz izendatu ere bai! Urte batzuk pasa dira eta ez dut esango gure artean ikusteaz ohitu garenik, baina urte hauetan bere presentzia gorabeheratsua izan denez, gure hasierako “traumak” arindu direla esan behar.

Goazen lehenbizi intsektu hau hobetoxeago ezagutzera. Kolorazio apaleko zimitz hau asiarra da eta gure lurretara “istripuz” ailegatu da, ez migrazio baten ondorioz. Familia honetako zimitz espezie mordoxka dugu gure artean, eta horietako batzuek (gure protagonistak bezalaxe) usain higuigarri bat ekoizteko ahala dute bere burua arriskuan ikusitakoan. Bere kolorazioa apala da, ondo kamuflatu da, baina bere antenetan eta hantketan (intsektua denez, sei ditu) marra zurixka batzuk ditu, oso nabarmenak. Aipatu berri dugun sistema bakar hori du guri “aurre egiteko”, beraz, usain txarrez aparte, ez dugu inongo kalterik jasan beharko etxetik joatera gonbidatzen



IÑAKI MEZQUITA ARANBURU

dugunean. Hegalari trebea da, eta batzuetan temati samarra, behin eta berriz lehenagoko ingurura itzultzen da. Hegan ondo egiten badu ere, oinez ibiltari trebea da, eta barregarria ere bada gure aurrean zerbaiten atzean nola ezkutatzeko den ikustea –landare, makila, edo zernahi–.

Gizakiontzat ez du inongo arrisku fisikorik, esan bezala, baina bai eragin dituela kalte ekonomikoak zenbait lekutan (Italian edo Herrialde Katalanetako Gironan, esate baterako). Ez da landare bakarraz elikatzen, eta horrek kalte ekonomikoak eragiteko aukerak ugaritu egiten ditu. Hala ere, esan beharra dago,

## ARMARRI-ZIMITZ JASPEZTATUA

*Halyomorpha halys*

**TALDEA:** Ornogabea/Intsektua/  
Hemiptera, Pentatomidae.

**NEURRIA:** 1,2-1,5 cm.

**NON BIZI DA?** Ekialdean du jatorria, baina Europan eta Amerikan ere zabaldu da.

**ZER JATEN DU?** Landareak.

**BABES MAILA:** Ez dago babestuta.

oraingoz behintzat, ez dela halako kalteren berri izan gure artean. Intsektu honek hibernazioa heldu fasean betetzen du, beraz, negua gogorra denean, bere populazioak gehiago sufritzen du. Uda amaieran edo udazkenean gordeleku bila ibiltzen da, hibernazioari aurre egin ahal izateko, beste hainbat intsektu bezalaxe (tximeletak eta abar luze bat), eta horregatik maizago ikusten dugu. 2023 urtean zimitz honen presentzia oso handia izan zen, 2024an, berriz, ez da halakorik izan. Kanpoko espezie bat ailegatzeko denean urte batzuk behar izaten dira leku berriariko moldaketa nola burutzen duen ikusi ahal izateko, klimatologiaren aparte, beste organismoekiko harremanak nola bideratzen diren ikusteko. Hau da, nola uztartzen den kate trofikoan, beste eragile batzuen artean zein diren bere harrapakari biologikoak, eta berauek ezartzen dioten presioa ikusteko. Ez dira urte asko pasa –sei, asko dira lagun bat noiz ikusiko dugun zain egoteko, baina ez intsektu baten egokitzapena antzemateko– eta adi jarraitu beharko dugu bere jardunbidea hurrengo urteetan, noski. ●



JUANTIAGUES / CC-BY-SA 2.0

## GINTONIKAREN EZKONTZA

**B**art arratsean izan da. Etxekoak gintonikari zurrupaka. Ni aspaldi dibortziatu nintzen gintonikarekin. Ginak oso gogoko ditut, hortz-haginak ur, baina tonikak ezin edan ditut, gozoegei eta burbuila zakar gehiegi.

Garrakizaleak gara eta etxe buelta guztian, katuaren mugarren barruan, joaten zaren tokira joaten zarela, era guztietako garrakizaleak topatuko dituzu. Sukaldean eltzekoa bixitzeko, edozer jaterakoan gordinean txinparta emateko edo gintonikari grazi asprea eransteko beti dago, zein baino zein, fruitu garratz egokiren bat, denak *Citrus* generokoak: mandarina (*Citrus reticulata*), laranja (*C. sinensis*), limoia (*C. limon*), lima (*C. aurantiifolia*), Rangpur lima-tanjerina (*C. limonia*), buda eskua (*C. medica var. sarcodactylis*), yuzua (*C. junus*), pomeloa (*C. x paradisi*), kabiari zitrikoak (*C. australasica*), kumkuat obala (*C. margarita*), lima-kumkuata (*C. x floridana*)...

Baldin eta ahozuriren batek gin zelebreren bat ekarri eta bestelako ordenarik ematen ez badu, gurean gintonika Rangpur lima-tanjerinarekin egiten da. Etxe kontra bizi da, oraintxe leihotik ikusten dut, fruitu emale oparoa da eta

ezin eskuerago dugu. Bere alearen azala bezalakorik ez dut ezagutzen ginaren mi-katzarekin baina batez ere tonika gehien gehiegizko gozoarekin ezkontzeko. Hiruko hirukote aparta.

Bai ba, hor ari ziren bart etxekoak dzanga-dzanga hirukoari tiraka, eta atentzioa eman zidan kopatzarraren ahotik azaltzen zen landare muturrak. Gaur egun badirudi gintonika ez dela gintonika baldin eta ez badago fruitu, petalo, hazi, edo abarrez hornitua. Adibidez, ipuru aleak (*Juniperus communis*) gina freskotu eta bizitzen du; kardamomo haziak (*Elettaria cardamomum*) bixi punttua eta dasta exotikoa eransten ditu; zainmin edo jengibre ehoak (*Zingiber officinale*) freskotasun min bizia ematen du; iltzeak (*Syzygium aromaticum*) arrasto bero mina ematen du. Kanela hautsak edo zotzak (*Cinnamomum verum*) zura gogorarazten duen gozotasuna damaio; Brasilgo piperbeltz arrosak (*Schinus terebinthifolius*) bizipoz sotil eta fina; arabisagar xerrak (*Citrus x paradisi*) mingots eta garratz freskoa; izpilikuak (*Lavandula spp*) usain loretsu gozoa; albakak (*Ocimum basilicum*) txinparta berde bizitxoak; arrosa petalo lehorrak (*Rosa spp*) ttantta fin eta sotil bat.

## Bizi Baratzearen AURKEZPENAK DURANGOKO AZOKAN

### Ilargia eta landareak 2025eko agenda:

Abenduaren 6an, 17:00etan,  
Arte eta Historia Museoan.

### Haziak liburua:

Abenduaren 6an, 17:30ean,  
Arte eta Historia Museoan.

### Kosmetikoak sendabelarrekin liburua:

Abenduaren 7an, 17:00etan,  
Talaia Areto Nagusian.

### Ilargiaren egutegia 2025:

Abenduaren 7an, 17:30ean,  
Talaia Areto Nagusian.



**JAKOBA ERREKONDO**  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Kopatan ageri zen landare muturra ez zen horietako inor, erromania, errumania edo erromeroa zen (*Rosmarinus officinalis*), amonaren baratze bazterreko landareari kendua. Harro ageri zen koparen ertzean zut, bere eliz usain erre-txintsuarekin ginebrak berezkoa duen belar usain nahasketa azpian hartuta.

Jaiegun saldoa dator urteko gau luzee-  
nekin neguko solstizioan, eta gintonikari nahasgarri horietakoren bat erantsi nahi badiozu hemen etekin onenerako bidea: hautatu ginaren araberako gehigarriak, zanpatu usainak lokabetzeko motrailuan eta erantsi ginebrari, bertan utzi ordu laurden batez eta iragazi; bota gin hori kopan izotzetara, gehitu tonika ura bere txinparta ez galtzeko eran eta, ezkontza bat da, erabilitako horien aleren batzuekin edertu eta apaindu kopa.

Erromeroa erabili. Aje gogorrean ere gertatuak gogoratzen lagunduko dizu; izan ere erromeroa usaintzeak memoria pizten du. Beste Europa batzuetan ezkontzetan maitea gogoratze-ko eta fidelitasunari eusten laguntze-ko nobioek adaxkatxoa zeramaten beti eta baita hil ondoren ere gogoratze-ko. Dzanga-dzanga. ●

GARBIÑE ELIZEGI, AROZTEGIKO AUZIPETUA:

## “MUGIMENDUA KRIMINALIZATU ETA AURREKARI BAT JARRI NAHI DUTE EPAIKETA HONEKIN”



GARAZI ZABALETA

**L**ekarozko Aroztegia makroproiektu urbanistikoaren aurkako zazpi ekintzaile epaitegira bidali ditu Palacio de Arozteguia S.L enpresak. 56.000 euroko isunak eta, guztira, 20 urteko kartzela zigorra eskatu ditu haien zat. Azaroaren 26an prentsurreko jendetsua egin dute Lekarozko frontoian, eta auzipetuei babesa emateko manifestazioa iragarri dute Iruñean otsailaren 1erako. “Talde kriminala gabela diote, baina hori gezurra da, momentu jakin batean gu hor ginela esateko frogarik ez dutelako asmatu dutena”, salatu du Garbiñe Elizegik, zazpi auzipetuetako batek. ARGIAko *Egonarria* saioko abenduaren 4ko gonbidatua izanen da lekaroztarra.

### “TALDE KRIMINALARENA MARRA GORRIA DA”

“Oso larria da akusazioa, herri mugimendua kriminalizatu eta aurrekari bat jarri nahi dutelako. Lehen dena zen terrorismoa, orain, talde kriminala”, adierazi du Elizegik. Baztandarrak azaldu duenez, egon da akordiorako aukera azken hilabeteetan, enpresaren abokatuak, auzipetuenak eta fiskaltza negoziatzen ibili baitira: “Egin genuena onartzeko prest agertu gara gu: makinaren aurrean jarri ginela herritar gehiagorekin batera.



Baina, talde kriminalarena marra gorria da guretzat”. Auzipetuek uste dute “talde kriminal” gisa izendatu nahi dituela enpresak, Nafarroako eta Espainiako Gobernuen kontra jarrita dituen bi demandengatik: “Akanpada garaian enpresa babesteko nahikoa baliabide jarri ez izana leporatzen die gobernuei, eta horretarako, gure ‘talde kriminal’ izaera hori behar du”.

Egitasmoak Udalaz Gaiendiko eragineko Plan Sektorial (UGPS) gisa izendatuta Nafarroako Gobernuaren egiten ari den triskantza salatu dute auzipetuek: “UPNk proiektu asko inposatzeko erabilitako bide hori aldatuko zuela adierazi zuen 2015ean ‘aldaketaren gobernuak’, baina gaur da eguna formula hori erabiltzen segitzen dutena”. Aroztegiako proiektuarekin, gainera, pauso bat harago joan izana ere salatu du baztandarrak, “foru intereseko” egitasmo gisa izendatuta tra-

mitazioarako erraztasun gehiago dituztelako proiektuek, Erdizko harrobiak kasu. “Formula horren kopia egin dute erkidegoan Tapia Legearekin. Gobernu desberdinak dira, aldatzen dira alderdiak, baina segitzen dute kartzelaren mehatxuek eta proiektuen inposizioek, eta honi deitzen diote demokrazia”, salatu du.

### MOBILIZAZIOETARAKO DEIA

Epaiketa otsailaren hasieran izanen dela aurreikusi dute akusatuek, data hori eman diete, momentuz. Horregatik, datozen aste eta hilabeteetan mobilizazioak eta ekimenak eginen dituztela iragarri dute, eta azpimarratu dute behar beharrezkoa izanen dela herritarren babesa: “Argi dugu hau ez dela gure aurkako zerbait konkretua, herri osoaren kontrako eraso da. Orain arte herritarren babesarekin egin dugu aurrera, orain ere horrela eginen dugu, elkarrekin eta modu kolektiboan”. Makroproiektu hau Baztanen kokatua izanik ere, nabarmendu du Euskal Herrian gertatzen ari diren beste ingurumen borroka askorekin lotura zuzena duela. “Gure lurralde kapitalaren esku uzteko estrategia orokorra dago honen atzean, eta beraz, estrategia nazionala izan behar luke honi erresistentzia egitea”, amaitu du Elizegik. ●



**Irurako udala**

San Migel plaza 1, 20271  
udala@irura.eus  
[www.irura.eus](http://www.irura.eus)

# “ ”

## Trumpen hautaketak eragin zuen trauma kolektiboaz badago osagai bat komikian

Craig Thompson

Craig Thompson kultuzko eleberrigrafoen egile estatubatuarra Europan izan da bere azken lana aurkezten, *Raíces de ginseng* (Astiberri, 2024). Bilbon bi aurkezpen egin ditu eta artista atsegina, hurbila eta azkarra dela erakutsi du –euskaraz “mila esker” idatzi du sinatu dituen komiki guztietan–. Demostratu du eztabaidatzeko prestutasuna ere badaukala.

  AITOR ASPURU / ARGIA CC-BY-SA

**Zure azkenengo komikiak, *Raíces de ginseng*-ek askotariko osagaiak ditu: zure familia, Wisconsin, globalizazioa...**

Berez, ginsengari [*Panax ginseng*] buruzko istorioa da. Landarea da kontaketa muina. Nire haurtzaroa igaro nuen ginseng landaketetan, 10 urte nituenetik 20 izan arte. Belar hori medikuntza txinatarrean erabiltzen da, baina ni gaztea nintzenean, ginseng amerikarraren munduko ekoizpen handiena nire landa-eremuko herri txikian –ezerezaren erdian galduta dagoena– egiten zen.

**Komikia oso osagai gogorarekin hasten da: umeen soldatapeko lana. amets amerikarra irauli nahi zenuen?**

Niretzat oraingoa da adin ertaineko krisialdiaren une gorena, nire lan jardunari dagokionez. Hogei urtez aritu naiz

komikiak marrazten. Ohikoa bilakatu zait eta maiz ez nuen gozaten. Azken urteetan borrokatu dut nire lanarekin, eta lagungarria izan da lehen lanpostuko erroetara itzultzea. Hau da, nola sortu zen nire etika-lana, baita lehen diru horrekin erosi nituen komikiak ere. Komiki horiei esker egin nintzen gerora marrazkilari. Hausnarketara eraman ninduen, lanari buruz eta nire etika-lanaren inguruan, izan nekazaritza edota komikiak marraztea.

**Ginsenga, adin ertaina... Hori guztia dago komikian, baina zer da funtsean landu nahi duzuna: nola munduak eman zizun forma, edo zein forma hartzen ari den mundua?**

Galdera ona da. Biak. Ginsenga ez zegoen kontzienteki nire buruan proiektu hau baino lehen. Ez da zerbait 30 urtetan pentsatu dudana, baina behin hasita, oroimenak hasi ziren agertzen.



Orduan nire arreba eta anaiarekin hasi nintzen hizketan eta oroitzapenak zabaldu ziren. Horrek eta ginsengaren sustraiei buruz ikertzeak eraman ninduten interesatzen nauten hamaika gaitan buru-belarri sartzera: globalizazioa, umeen soldatapeko lana, nekazaritzaren bilakaera nekazari familia txikietatik monolaborantzako korporazio erraldoietara, industria militarrek eta farmazeutikoak horrekin duten lotura... Bat-batean, ginsenga agertu zen Moby Dick-eko bale zuria bezala, gai anitzak jorratzeko bide gisa.

**Egia da hori guztia komikian dagoela, baina, aldi berean, badirudi zure familiarekin eta Wisconsinekin bakea egin duzula, eta amodio aitortza dela. *Blankets* komikia kontrakoa zen, hain justu.**

Erabat. *Blankets* hasi nuen 33 urte nituela. Une horretan bizitzen ari nintzen trauma: haurtzaroa, herri txiki zapaltzailea, jazartzen ninduen jendea, nire gurasoen erlijio errepresiboa eta euren jarrera autoritarioa. Hori guztia nire baitan zegoen.

24 urte igaro dira. Heldua naiz eta lan honek nire jarrera leundu du aipatutako horri guztiari dagokionez, eta bereziki nire gurasoei begira. Inoiz baino harreman estuagoa dut gurasoekin, eta komunikazioa bizia da. Adinarekin zaurgarriagoak dira eta nire laguntza behar dute.

Gainera, dibertigarria da egoera, eza-gutu nituen nekazari gogor eta indartsu horiek, orain ni heldua naizela, jende eskuzabala iruditzen zaizkit eta eurekin hitz egitea erraza zait. Umea nintzenean ihes egin nahi nuen leku horren bizitza sinpletik. Egun, aldiz, ez dut esango nostalgia sentitzen dudala, baina bai errespetua eta mirespena.

**Zenbait kontraesan azaleratzen saiatzen zara. Adibidez, Wisconsingo jendea, Trumpen aldekoa, bizi da oso modu sinplean eta, beste estatubatuar batzuen bizimoduarekin alderatuta, ez dirudi horren kapitalista.**

Bai. Liburuan badago osagai bat Trumpen hautaketari buruz eta horrek eragin zuen trauma kolektiboari lotuta. Saiatu naiz hori ulertzen. Izan ere, 2016an presidente izendatu zutenean, Los Angelesen bizi nintzen eta inork ez zuen uste

hori gertatuko zenik. Baina jazo zenean, jende orok begiratu ninduen azalpen bila, AEB barnealdeko landa eremuko langile klase zuriko komunitateko kidea nintzelako. Badirudi ondorengoa pentsatu zutela: “Zergatik zure jendeak aukeratu du Trump?”. Askorentzat Trumpen bozkatzaileak supremazista zuri biolentoak baitira, baina nik banekien hori ez zela kasua. Alegia, jende asko atsegina, zentzuduna eta zintzoa da.

Edonola ere, ez nituen nire iritzi politikoak islatu nahi kontakizunean, saiakera egin dut dokumental egile baten moduan jokatzeko eta nire ahotsa isiltzeko, nekazari elkarrizketatuen eta euren familien alde pertsonalak entzun ahal izateko.

**Komikian agertzen den gaietako bat klase zapalkuntza da.**

Egia esanda, nire herria, Marathon, 1.200 biztanlekoa, leku aberatsa zen,

ginsengaren ekoizpenagatik. Hura saltzen zuen nekazari asko milioiduna zen. Ikasketarik gabeko landa eremuko komunitatea izanik ere, jendeak dirua zuen. Baina guk ez. Nire familia ez zegoen negozio horretan. Leku oso berezia zen Marathon eta horrek txiroago egiten gintuen, nekazarien seme-alabek dirua zutelako.

**Horregatik ez zinen inoiz onartua izan?**

Beti izan nintzen kanpotarra. Neurri batean mutil argala nintzelako, baina ez zuen lagundu nire familiaren erlijioak. Sinesmen horiengatik komunitatetik kanpo bizi ginen, gurasoek ez ninduten uzten gure elizatik kanpokoekin harremanetzen. Isolamendua da sekta baten ezaugarria. Hortaz, nahasketa izan zen: nire izaera barnerakoa eta beste neska-mutilekin egotea debekatuta izatea, gure elizakoak ez zirelako.





### **Debeku hori eraman zuten muturreraino eta institutua uztera behartu zintuzten.**

Bai, badirudi beti pentsatu zutela hori egitea. Etxeko hezkuntza kristaua egin nahi zuten, antza, baina ez zekiten nola. Institutua amaitzeko ikasturte bakarra geratzen zitzaidanean, erabaki zuten ez zegoela ezer garrantzitsuagorik hezkuntza sekularra ekiditea baino, eboluzioaren teoria eta abar. Borondate gehiago izan banu, ez nukeen onartuko eta gutxienez diploma hori izango nukeen, baina oso pasiboa nintzen eta ez zitzaidan axola. Dena den, erlijioa horrela bizi izanak eraman nau kristau izateari uko egitera, niretzat zapaltzailea izan baita.

### **Habibi komikiarekin kultura apropiazioa leporatu zizuten eta azken komiki hau hasi baino lehen baloratu zenuen ez egitea horregatik.**

Komiki hau iragarri nuenean, 2019an, AEBetan internet bete zuten protestekin. Ez zuten komikia ikusi, baina ideia berak haserretu zituen, kultura apropiazioa egingo nuela uste zuten. Haien aburuz, *Habibi*-rekin kultura islamiarrekin horixe egin nuen eta txinatarrarekin ere hala egingo nuen. Haien iritziz, ez nuen baimenik hori egiteko, nire kultura dudalako.

Edonola ere, komiki hau ez da kultura txinatarrari buruzkoa. Hala eta guztiz ere, kritika handiak jaso nituen eta komikia alboratu nuen sei hilabetez. Ez nuen marraztu, baina tarte horretan konturatu nintzen komikia bazela kritika horientzako erantzun inkontzientea, galdera batekin: nola gainjartzen da zure kultura beste batzuekin?

Nire herri txikian ekoizten zen ginsenga merkatu txinatar osoan kontsumitzen zen. Niretzat horrek ez zuen baliorik, ez esanahirik. Umea nintzen heinean, beste lan bat zen niretzat, beste edozein lan txar baten moduan, soilik diru apurra lortzeko. Baina hori zuzendu dut orain, galdetuta zer den ginsenga, zer esan nahi duen Txinako kulturen eta medikuntzan. Liburu hau egin baino lehen ez nuen uste kultura propiorik nuenik, baina honek lagundu nau ulertzen nire jatorrizko herria toki benetan berezia dela.

### **Euskal Herrian aipatu duzu eskuetan gaixotasuna duzula eta dirutza xahutu behar duzula tratamenduetan, AEBetako osasun sistema dela-eta. Nola hartzen du hemengo jendeak hori?**

Sistema horrek ez dauka zentzurik inorentzat, ezta estatubatuarentzat ere. Ni freelance langilea naiz, ez daukat ohiko lana. Oro har, enpresek ordaintzen dituzte mediku aseguruak, zure soldata-

tik kenduta jakina, baina nik nire kabuz ordaindu behar dut. 700 dolar hilero, alegia. Horrek ez du esan nahi ez dudarik ordaindu behar medikuarenera joaten naizenean, baizik eta ordaindu gabe bisitatu dezakedala 20.000 dolarreko gasturaino. Hori ordaintzen du aseguruak. Bitartean, gure zergak bideratzen dituzte militarrek ordaintzera, eta ez osasungintzara edo hezkuntza sistemara, benetan behar dugunera.

Estatubatuarra izatearen alderik etsigarriena da eta Obamaren administrazioaren osasun sistemaren nazionalizazioaren ondorioa da egoera, nire kasuan. Nazionalizazio hori baino lehen, artista freelance ginenok ez genuen aseguru behar eta askoz merkeagoa zen, 300 dolar ingurukoa. Aldaketarekin bihurtu zen prezioa.

Ziurrenik ezkutuan gauza asko gertatu ziren kongresuan, jatorrizko proposamena onartzeko demokratek egin zituzten ahaleginak sabotatzeko. Azkenean, legea faltsutu zuten eta herritar ororentzat kaltegarri bilakatu da. Bizi baldintzak askoz okerragoak dira azken hamarkadan langile klasearentzat eta klase ertainentzat, eta hori erokeria eta etsigarria da politikoki. Hori da orain bizi dugun AEB.

**Pop kulturari keinu ugari egin dizkiozu: komikiak, jostailuak... Zure**



**haurtzaroarekin zenuen zorra da?**

Bai, liburu hau ere bada saiakera bat berriro topatzeko komikiekin daukadan amodioa, lana bilakatu delako niretzat. Ahalegina egin dut bederatzi edo hamar urte nuen ume horren barruan sartzeko, orduan maitemindu bainintzen komikiekin: superheroiak, Ninja Dortoka gazteak... Maleziarik gabeko aroa zen niretzat, eta ez dira orain egin nahi ditudan komikiak, baina topatu nahi nuen komikiek sortzen zidaten lilura hori. Marrazkilaria den lagun batek esaten du gure lana dela egunero ulertzea nola mantendu komikiekin amodioa. Nola mantendu haurtzaroaren grina bizirik, alegia.

Bestalde, Chua Vang eta beste Hmong migratzaileak agertzen dira komikian; hamar urterekin haurtzaroa utzi behar izan zuten, bultzatu zituzten helduak izatera. Eurak ezin ziren etxean geratu eta marrazki bizidunak ikusi. Horrela igaro naiz Hmong herriaren gerratik eta genozidiotik, garai horretan kontsumitzen genuen pop kulturaren eskutik.

Chuaren aitak Laos utzi behar izan zuen CIAren guda sekretuen ondorioz, Vietnamgo gerrako garaian. Edonola ere, haurtzaroan guk ezagutzen genituen gerra sekretu bakarrak Marvelen Secret Wars sagakoak ziren. Chuaren aita ume soldadua izan zen adinarekin gu hasi ginen lehenengo komikiak erosten.

**Biziraun dezakezu komikiak marrazten?**

Bai, zorionekoa naiz eta horri esker biziraun dut, batzuetan ozta-ozta. Ez daukat inolako jabegorik, ezta etxebizitza txiki bat ere. Oso modu apalean bizi naiz, baina hala ere zorionekoa naiz. Nire lagun eta mentore Jose Saccok dio: "AEBetan agian hamar morroi bizi dira eleberri grafikoak egitetik". Eta bera eta biok gara horietako bi.



“ ”

*Marrazkilaria den lagun batek esaten du gure lana dela egunero ulertzea nola mantendu komikiekin amodioa. Nola mantendu haurtzaroaren grina bizirik, alegia*

Ez dira asko, jende gehienak irakasle edo diseinu lanak ere egin behar ditu. Beste batzuek *mainstream* komikiak marraztu behar dituzte, superheroiak eta komiki komertzialagoak. Guk komiki pertsonalak eta literarioak egin ahal ditugu.

Sakrifizioa da, baina onartzen dut. 49 urte ditut orain eta gai izan naiz komikiak egiteko hogeitaz urtez, *Habibi* egiteko kontratua sinatu nuenetik. Orduan

kobratu nuen lehenengo aldiz aurrerapen bat eta horri esker biziraun nuen amaitu arte. Egia da batzuetan izututa bizi izan naizela. Aitortu behar dut orain nahiago dudala idaztea marraztea baino, gehiago gozatzen dut eta marraztea lana iruditzen zait.

**Zure idazteko eta marrazteko modua askoz konplexuagoa da azken lanean Blankets-en baino.**

Bai, *Blankets* istorio oso sinplea, txikia eta intimoa zen eta nik ahalik eta orrialde gehien erabili nahi nituen kontatzeko. Gainera, paisaia elurtuetan igarotzen zen, oso minimalista zen. *Raíces de ginseng*-ekin kontrakoa gertatu da. Informazio mordo nuen eta sintetizatu behar nuen. Serie moduan argitaratu dut AEBetan eta atal bakoitzak 30 orrialde zituen. Dena orri kopuru horretan sartu behar nuen eta sekulako ariketa izan da. Behartu nuen nire burua laburtzera. Nolabait, komiki mainstream-etan egiten dutena egin behar izan dut, ahalik eta gehien kontatzeko.

**Aurkeztu berri duzun komikia bukatzean zer sentitu zenuen?**

Lehenik eta behin, ase nintzela. Aurreko komikiekin ez dut horrelakorik sekula sentitu. Halaber, nire azken hamar urteak zailak izan dira, eta komikia amaitzean ikusten nuen energiarik ez nuela jarraitzeko. Dena den, European zehar aurkezpen-bira hasi eta egunak igarota inspirazioa sentitzen ari naiz berriro. Ideia etorri zait liburu berria sortzeko, eroa eta epikoa. Nire editoreak nahi du zerbait laburra egitea, baina 600 orrialdeko liburu bat buruan. Agian trilogia egin dezaket. Liburu handietan pentsatzen dut, agian nire etxe fededunean Biblia Santua baino ez zegoelako. Hori da nire liburuen neurria (barreak). ●





## Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1															
2															
3															
4															
5															
6															
7															
8															

**EZKER-ESKUIIN:**

- 1.** Kanta zaharra. / Isil. **2.** Luzatu aditzaren erroa. / Behiaren kume. **3.** Aurtengo Durangoko Azokaren leloaren azken bi hitzak. **4.** Bizkaiko udalerria. **5.** Intsektu mota. / Adimenak sortzen duen ideia. **6.** Oinazea eta harridura adierazteko erabiltzen den hitza. / Nafarroako harana. **7.** Aurtengo Durangoko Azokaren leloaren lehen hitza. / Zatarki. **8.** Izateko era. / Eskizofrenia mota.

**GOITIK BEHERA:**

- 1.** Hitza, berba. / Ore jangarri. **2.** Rona. / Da, haiei (alderantziz). **3.** Ezagutza. **4.** Planeta baten inguruan biratzen den argizagi. **5.** Gaixo. / Zirkonioaren ikurra. **6.** Mendebaldean, zen. / Emakumezko izena. **7.** Medikuari dagokiona. **8.** Ezezkor. **9.** Modu atzikia. / Dirudienez. **10.** Behiaren arbaso, zezena baino handiagoa, XVII. mendean desagertu zena. / Gaitzo, oker. **11.** Hitzordu. **12.** Erara. **13.** Ahatearen kume. **14.** ... egin, eskaini eta ez eman. **15.** Ukapena.

## Sudokua

ERRAZA

1			2	9	8		3	7
8	9	7	3		4			1
6		3						8
	7					8		6
2	1	9				5	4	
		8			5	7		
7	3	2	8	5				
	8	1		3	2		7	5
	5		4	1		3	8	2

ZAILA

						7		4
	8	3				5	2	
		7			8			
6				4		3		
				1		2	5	9
	1	2			9		7	
		6	8	3				7
9							8	
	2							

## Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.


ROEN E  
Z A D U  
N U R E

RT GE I  
O G N I  
K O Z T I  
S A R T Z

## Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

Jaso, eraiki	<b>EREGI</b>
Ur gainean higitu	
Guri	
Gaixotasun kutsakor	
Barazki mota	
Tontor, punta	
Enea	
Keinada	
Ugaztun sarraskijalea	
Delako pertsona hura	
Bezainbat	
Ordea	
Gela baten estalki	<b>SABAI</b>

**EBAZPENAK**

DUZUN TOKIRA EZ SARTU.

**ATSOITZITZA**

GERO IRITEN EZINGO

SABAI  
BAINA  
ADINA  
HAINA  
HIENA  
KEINA  
NIREA  
ERPIN  
PIPER  
GRIFE  
GEURI  
IGERI  
EREGI

**ANAGRAMAK**

ERRAZA

ZAILA

ERRAZA

ZAILA

ESKER-ESKUIIN: 1. ERESI, MUTU; 2. LUZA, ZEKOR, 3. EMATEA DA; 4. GERNIKA; 5. EULI, KONZERTU; 6. AIEI, BORTZIRIAK; 7. HARTZA; ZATARTO; 8. IZERA, PARANOIA. **GOITIK BEHERA:** 1. ELEA, AHI; 2. RUM, EIAZ; 3. EZAGUERA; 4. SATELITE; 5. ERI; ZR; 6. ZAN, BEA; 7. MEDIKOA; 8. UKAKOR; 9. TO, ANTZA; 10. URO, TZAR; 11. ZITA; 12. ERAN; 13. PIRO; 14. TATI; 15. UKOA.



# Lorategiak eta lorezainak zaintzeaz

✍ IÑIGO SATRUSTEGI 📍 IRUÑALDIA

Hementxe gaude, Katrakakeko aulki guztiak beteta, hementxe. Erorien monumentua eta Landaben hizpide, hasi da koplaka emanaldia edo RR-zitala. Tira, ez dut gehiegi kontatuko, esan izan baitadate spoilerrak egiten ditudala. Hala ere, pentsa dezakezu erremmerrea den batek bere buruaz irri egiteko saio bat dela, baina hori baino gehiago, da hitzekin eta formarekin jolasean egindako performance bat. Horraino kontatuko dut. Probestuko dut aukera, beraz, ardu-para bat planteatzeko.

1. Loraldia bezalako jaialdi bat beste tokietara zabaltzea: *guay*. Kulturaren eta adierazpide hibrido-esperimentalen lantzaderak beharrezkoak dira, eta ez daitezela leku jakin batzuetan monopolizatu. Baina nago azken aldian Iruñean ez ari ote zaigun kulturaren programazioa eskuetatik ihes egiten. Hartuko bagenu irailetik antolatuko diren euskarazko

kultur emanaldien agenda, harrituko ginatete. Eta nago, joera hori ez ote datorren joera handiagoetatik: ikus musikariek aipatzen dituzten kontsumo joerak; liburugintzan, irakurlerik gabeko ekoizpen gaindosia; ikus-entzunezko proposamenak etengabe... Eta zintzoak izanik, kultura horretara iristen direnak ez ote diren/garen betikoak, diru-zorrocko zuloa gero eta handiago egiten. Lorategi bat da Iruñea, loraldi betean, baina zaindu egin behar dira loreak eta lorezainak.

2. *Berritzailea* hitza dabil saioaren osteko poteoan. Tira, berritzailea dena da Lujanbio bera erregistro horretan: koplak, ASMR, poesia, kantua, stand-up(?), eta dantza. BAI, gutxi, baina dantza egiten du. Lan ederra egin du hitzei errebuta asko ematen, eta zentzu bikoitzak eta hoskidetasunak topatzen. Baina "berritzailea" agian ez

## RR

**NORK:** Maialen Lujanbiok

**NOIZ:** azaroaren 21ean.

**NON:** Katakraken (Iruñea) plazan.

da hitza. Errezital performatibo batzuk badatozkit burura, eta gutxiak bete dute areto bat Lujanbiok nola (eta hau ez da ezer haren kontrakoa, inolaz ere). Baina bada esanguratsua ikusteko publikoak –eta programatzaileek, promotoreek eta ekoizpen etxeek– zeri ematen dion autoritatea, eta horrenbestez, espazioa beren agendetan. Berriz ere, hau ez da emanaldiaren eta Loraldiaren kontrako kritika bat.

Iruñea lorategi bat da. Nik inoiz ederragorik ikusi dudana ez dakit. Baina, agian, astero lorategiko lore ederrenak eta handienak ekartzearekin ez da nahikoa. Erein behar dira haziak (sortu kultura baten beharra), kimaketa lanak (kontsumo eredu birpentsatu), ekarri bizilagunen balkoietako aldaxkak (ulertzen da, ez?), eta lorezainak horren guztiaren parte egin. Hori ba, loreak botatzearena, beste baterako. ●



## LIBURUA

# Marigorringoak Afrikan

XABIER ETXANIZ ERLE

Duela 30 urte argitaratu zuen Patxi Zubizarretak *Marigorringoak hegan* liburuxka; J. M. Lavarellok ilustratua eta Edebé argitaletxe katalanaren eskutik. Aspaldi honetan, baina, ikusten ari gara Euskal Herritik kanpoko argitaletxei gero eta gutxiago interesatzen zaie la euskarazko haur produkzioa (Maria-sun Landa, esaterako, Ereinerak ekartzen ari da kanpoan zuena, edo Atxagak ez du, adibidez, erdaraz plazaratu *Ata Pank* eta *Ate Punky* saila). Lehendik zegoena deskatalogatzeari ere ekin diote.

Politika horren ondorioz dugu Zubizarretaren lan hau esku artean. Ez da aspaldiko marigorringo hura baina bai ipuin hartatik abiatuta eginiko bertsiso berri, gaurkotu eta osatua. Irimarraren ilustrazio biziak eta Ibaizabal etxeak plazaratua.

Neskatila bat dugu narratzaile, June, eta honela ekiten dio kontaktari: "Aurtengo udan, zeruari euria egitea ahaztu zaio. Zerua urdin-urdin dago eta inon ez



## GUARDASOLAK EURIA NAHI DU

PATXI ZUBIZARRETA  
ILUSTRAZIOAK: IRRIMARRA

IBAIZABAL, 2024

da hodeirik ageri: ez hodeirik, ez trumoirik, ez euririk... ezertxo ere ez. Eta ezin egin inon igeri!"

Lehortea, suteak, tenperatu altua, aldaketa klimatikoa (kilimatikoa Juneren

hitzetan)... eta saltsa horren erdian amona Inesek guardasol bat pintatzea proposatzen dio ilobari.

Eta Junek hainbat esaera eta uste ai-patu eta komentatuko ditu, lagunekin eta bere buruarekin ere, euria ekartzeko. Marigorringoen formula magikoa, gaizki kantatzea edo tximeleta hiltzea; eta Junek euria nahi duen arren ez du tximeletarik hil nahi eta eskuan duen liburua itxiz tximeleta hil beharrean parez pare irekitzen dio leihoa. Azkenean, txorroskileroa etorri da herrira, eta "zorrotzailea etortzen denean, horrek esan nahi du laster euria egingo duela!", esaten dio amak.

Istorkoak amaiera alaia du, Junek "plista-plasta, plisti-plust, mela-mela eta blai-blai!" kantatzen baitu ordurako Afrikan egongo den tximeleta gogoan.

Irimarraren irudiek ederki islatzen dute narrazioaren tonua eta kontakizuna; testua are ulergarriagoa egiten dute eta txikiei kontatzeko moduko objektua bilakatu liburu hunkigarri eta eder hau. ●

## MIGRATZEKO ESKUBIDEAREN ALDE

2024KO ABENDUA

Hernaniko  
Udala

amher  
Hernaniko Elkarte  
Multikulturala  
Asociación Multicultural  
de Hernani

AZAROAK 24-ABENDUAK 30  
Kiroldegi aurreko pasealekuan  
(Latxunbe Berri)

Ihesa zilegi balitz

5 osteguna  
Hernaniko institutuan  
AMHER-SOS  
Arrazakeriaren  
hitzaldiak  
migrazioari buruz

9 astelehena

19:00 Kulturarteko Plaza Feministan  
Liburu aurkezpena

Hija de inmigrantes

12 osteguna


10:30-12:00 Atsegindegin  
Azoka

12:30 Atsegindegitik hasita  
Migratzeko eskubidearen  
aldeko martxa

16 astelehena

19:00 Kulturarteko Plaza Feministan  
Laburmetraia

"Han eta hemen"



MUSIKA

# No Nerbioi

XALBA RAMIREZ

Tira, jada bukatu denez Gramsci zitatzeke moda, ekarri dezakegu lerro hauetara oportunitate akusaziorik gabe. Are gehiago Sal del Cocheok ere hala ekartzen badute: “Badirudi garai zaharrak ez direla hiltzen, badirudi garai berriak ez direla jaiotzen”. Bitarte horretan, munstroak jaio daitezke, edo Sarrik esaten zuen moduan, itxarongela aspertu bat izango da gure Euskal Herria. Ostiko batekin dator *Ciudad de Polvo* bonba sonikoa (Humo Internacional, 2024).

“Entzun ezazu musika berria”, eta “irensteke zaila den pilula bat da hau” dira diskoaren hasieran egiten zaizkigun jakinarazpenak, jazz piano baten ostean. Lehergailu atomiko bat da *Año 2000* eta, ostean, berriz, lasaitasuna *Hernani 3*-n. Baxua akordeak egiten, eta saxo jole birtuosoa melodika sinple bat jotzen —tentsioekin, noski, falta zena—. A zer hirukoa batu dena! Vulketik datozen Jangitz eta Alberto batera-baxuan, eta jazzetik datorren



## CIUDAD DE POLVO SAL DEL COCHE HUMO INTERNACIONAL, 2022

Lizardi Ceballos saxoan eta sintetetan.

Eta horixe, halako reggae batera goazela, gero sample entsalada batera, ondoren *dj*-rekin indarra dator bueltan, eta *Ciudad de Polvo*-n oihu ta garraxiak, eta *Maquina de humo*-n Kamaal Williamsen estiloko akordeekin ireki eta kontzertu batean gaudela sentituko dugu BRAVArekin batera abestuz.

Gaietan tematika indartsurik ez dagoen arren, estetika berri bat proposa-

tzen digute. Euskal Herrian *The shape of the punk to come*-n ildoan egin den lanik antzekoena, akaso? Intentzio aldetik nabil, noski.

New Yorken 1970-1980an sortu zen post-punkaren ildoan *No Wave* mugimendua. *New Wave* delakoaren kontrako abangoardia mugimendua izan zen, eta, akaso ildo bakarra gartztea lortu ez zuten arren, etorkizuneko rockaren oinarri asko jarri ziren, *No New York* bilduman kristalizatu ziren. Muturreraino eraman behar da zarata, ondoren, gauza normal eta salgarriak egiteko.

Sal del Coche akaso indarra dauka bidea irekitzeko, baina garai berri bat irekitzeko gehiago izan beharko dira kotxera igotzen direnak, komunitaterik gabe ez dagoelako eszenan eragiteirik. No Bilbao, No Bizkaia, No Nerbioi? Ez dakit zeren kontra, eta zeren alde, baina ni gurdi honetara igotzeko oso prest: “Dakidana emango nuke, argitasun une batengatik”. ●

euskaraz  
e//  
BARRA // BARRA

Ikur honek euskara erabiltzeko aukera bermatzen dizu  
Oiertzunen 90 establezimendutan



OIARTZUNGO  
UDALA

# Droneak, gaitak eta Eguberrietako argiak

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**B**este askok bezala, nik ere ez nekien zer egiten nuen han, Donostiako Alderdi Ederren, joan den ostiral arratsean. Ustez, Eguberrietako argiak piztu behar zituztela eta juntatu ginen klase, arraza eta genero orotariko jendeak, baina esango nuke hauteskundeak izaten direnean bezala gerturatu ginela, hau da, pasio handirik gabe, igual karamelu bat, boligrafo bat edo pin bat oparituko ziguten esperantzaz.

Argi batzuegatik hainbeste komeria. Esango lukete elektrizista batek edo bik egunero egiten dutela horixe bera, eta hain hanpurus jarri gabe, baina tira, megafoniako abisuak moztu dizkit pentsamendu ezezkorrok. Adi egoteko denak, ez despistatzeko atxamartak, eskuluzek ere ibili litezkeela; eta ebakuaziorik egitekotan, Hernani kalerantz bideratu behar dela hanka-jokoa. Hasi aurretik ere ebakuatuko nintzen handik egia esan, baina. Itxoin egin behar.

Eta itxoiteko, piano-pieza bat. Lararilarara. Ei, ba ez dago batere gaizki. Badu zerbait. Halako malenkonia doi bat, ezpalduz bezala doana, entzulearen poro guztiak betetzen dituena. Gustatzen zait. Gustatu baino gehiago. Joder, a ze konposizio puska. Hunkitzeko puntuan nagoenean moztu du megafoniak berriz, “Donostiako enbaxadore” gisa aurkeztu duen abeslariari sarrera emateko. Ah, ahaztua nuen: makina, segundu bat, Mikel Erentxun behar dusu gaur. Enbaxada ederra izan da etortzea, bai horixe.


Tipoa Tio Pepe bat eginda atera da udaletxeko terrazara eta han hasi da, Olentzero joan zaiguka. Mikel erentxuten aritu arren, gaita galiziarrez akordatu naiz, eta pentsatu dut oso antzeko kualitateak dituztela biek. Adibidez, soinu berbera egiten dute ezkontzetan eta funeraletan. Eta aizu, nondik begiratzen diozun, bi zeremonia horien sintesia izan liteke argiak pizteko antolatatu duten kontu hau.

Idea hori garatu gabe geratuko da ordea. Erentxunaldia ez da asko-asko luzatu, berehala dator arrats honetako mamia eta konpota: botoia sakatzeko unea. Horretarako, donostiar olinpiko batzuk inguratu dituzte, derrigorrez han behar zuten agintari eta notableez gain. Eta justu etengailua zanpatu eta tamarindoak, flax, argiztatu diren momentuan, orduantxe akordatu naiz horrelako eszena bat zegoela Tim Burtonen *Batman Returns* pelikulan, zeinean Gabonetako argiak piztu ondoren kaosa nagusitzen baitzen Gotham hirian, Pinginoaren talde armatua bereak eta bi egiten hasten zelako. Emozio fuertekak bizitzeko prestatu naiz, beraz; batez ere esan dutenean orain droneak datozela.

Droneak ere, gaita galiziarrek bezala, berdin agertzen baitira asuntua zerbait ospatzea denean edo norbait hil dela zertifikatu behar denean. Bueno. Berez, droneak norbait hil aurretik agertu ohi dira. Norbait hiltzeko, alegia. Argi-ikuskizun honen aitzakian bildu gaituzten guztiak jo eta lehertuko ote gaituzte Kontxako badiako zerutik jaurtitako misilekin?

Ez ba. Hau Donostia da. Donostian ez dute jendea horrela, masiboki eta momentuan akabatzen. Modu atseginagoan saiatzen dira gauza bera lortzen. Olentzeroren irudi bat osatu dute droneek lehenbizi, Gabonetako beste irudiren bat gero, baina berehala argi geratu da dena aitzaki hutsa dela benetako mandangara iristeko: Haizearen Orrazia, Kontxako baranda, Realaren armarría, danbor bat, hiriko bandera... Batere konturatu gabe, nazionalismo donostiarraren exaltazioa egiten duen ekitaldi batean ikusi dut nire burua. Beldurra sentitu dut, hori da egia.

Eta okerrena: ikusita gauza “ondo” atera dela –ez dela izan, adibidez, Donostia 2016ko inaugurazioan ikusi genuen *puenting* hura bezalako zerbait–, irudipena daukat erritual hau urtero errepikatuko dela. Izan liteke Aste Nagusiko su artifizialen neguko baliokide bat. “Uoo” eta “aah” guztiak bukatzean helatuaren orde zerkatu: hori da orain, hiri honetan, kontsentsu zabal baten bidez baretu beharreko kezka larria. ●




24/25

ABENDUAK 14 - URTARRILAK 5

# UMEEN GABONETAKO PARKEA



DIBERTSIOA  
BALIOEKIN



EROSI ZURE  
SARRERAK  
ONLINE



**B!** BILBAO  
**E!** EXHIBITION  
**C!** CENTRE

EXPOSSIBLE!

Abenduak 3.  
Euskararen Nazioarteko Eguna



Zu zeu izan Kutxabanken ere,  
bizi euskaraz.

Aukeratu euskara Kutxabankeko harremanetarako.  
Kanal guztiak euskaraz erabil ditzakezu. Informa zaitez.

Kutxabanken Hizkuntza Politika  
ikusi hemen: [www.kutxabank.eus](http://www.kutxabank.eus)

